

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1717

AGINDUA, 2026ko apirilaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez 2026-2027 ikasturterako egutegia ezartzen baita eskabideak aurkezteko eta onarpen- eta matrikula-epetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuek eskaintzen dituzten hezkuntza-sistemako ziurtagiri profesionalei (C graduak), lanbide-heziketako zikloei (D graduak), espezializazio-ikastaroei (E graduak) eta espezializazio-programei dagokienez, eta ikastetxe horietarako onarpen- eta matrikula-jarraibideak onesten baitira, irakaskuntza horiek eskaintzen dituzten ikastetxe guztietan eskaerak grabatzeko eta matrikula egiteko jarraibideak onesteaz gain.

1/2018 Dekretuak, zeina azaroaren 2ko 132/2022 dekretuak aldatu baitu, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen du hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), bai eta Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere. Bada, dekretu horren 10. artikulua ezartzen duenez, hezkuntza-etapa bakoitzean ikasleak onartzeko prozedura berdina izango da dekretu horrek xede dituen ikastetxe guztietan, eta urtero arautuko da hezkuntza-arloan eskumena duen sailburuaren aginduen bidez.

Era berean, kontuan hartuko da arau honek ezarri duena: 30/2023 Dekretua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen.

Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 28. artikuluan jasotzen denez –otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuan emandako idazkeran–, hezkuntza-arloko eskumena duen sailburuak zehaztuko du ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa egin nahi duten ikasleak onartzeko urteko egutegia, aplika daitekeen araudian ezarritakoarekin bat etorrira. Gainera, sailburu horrek zehaztuko ditu, besteak beste, onarpen-datak, ikastetxe batean eskaintzen diren plazak eskaerak baino gutxiago direnean aplikatu beharreko irizpideak eta sarbide desberdinetarako erreserbatu behar diren plazen ehunekoa, Lanbide Heziketako sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Aipatutako 14/2016 Dekretuak beste artikulua bat, 12ter, gehitzen dio 32/2008 Dekretuari, eta hau aipatzen du hitzez hitz: «Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak proposatuta, pertsonen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako lanbide-espezializazioko programak ezarri ahal izango ditu». Hala, irakaskuntza horietarako onarpen- eta matrikula-irizpideak ere ezartzen dira.

Ondorioz, agindu hau ematen da eskabideak aurkezteko eta ebazteko epea ezartzeko. Hala ere, zehaztuko da interesdun bakoitzak, hala badagokio, zer dokumentazio aurkeztu behar duen eskaerarekin batera, onarpen-prozeduran kontuan hartzea nahi duen irizpideak egiaztatzeko, dekretu horretan ezarritakoarekin bat etorrira.

Bestalde, Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean ezartzen denez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluko V. kapituluko artikuluetan jasotako lanbide-heziketako irakaskuntzen antolamendua 3/2022 lege horretan xedatutakoaren arabera egin dela ulertuko da, eta araudian xedapen horiei egiten zaizkien erreferentzia guztiak aipatutako legean xedatutakoaren arabera egin direla ulertuko da.

Lanbide Heziketako sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen denez, Lanbide Heziketako sistemaren eskaintzek bost gradu sekuentzial dituzte: A, B, C, D eta E.

Agindu honetan, C, D eta E graduatarako onarpen- eta matrikulazio-irizpideak ezartzen dira, bai eta otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuan araututako espezializazio-programak ere (32/2008 Dekretua, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua). Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-espezializazioko programak ezartzen dira Lanbide Heziketaren eremuan, bai eta haien aitortpena eta ziurtagiria ere, indarreko arau-esparruaren barruan balioa dutela egiaztatzeko.

Era berean, kontuan hartuko dugu 86/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, lan-esperientziaren, prestakuntza-bide ez-formalen eta ikaskuntza informalen bidez eskuratutako oinarrizko gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeari buruzkoa.

Bestalde, kontuan hartuta araututako irakaskuntzak ofizialak direla, itundu gabeko ikastetxe pribatuei zenbait informazio-betebehar ezarri zaizkie xedapen gehigarri bakarrean.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Agindu hau aplikagarria da 2026-2027 ikasturterako onarpen- eta matrikula-prozeduran, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxe pribatuetan eta udal-titulartasuneko oinarrizko lanbide-heziketako ikastetxeetan, irakaskuntza hauek ematen badituzte:

a) C graduak: 1. mailako, 2. mailako eta 3. mailako ziurtagiri profesionalak.

b) D graduak: oinarrizko mailako, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak eta lau ikasturteko ibilbide integratuak (oinarrizko maila + erdi-maila).

c) E graduak: erdi-mailako eta goi-mailako espezializazio-ikastaroak.

d) Espezializazio programak.

2.– Ikastetxe pribatu ez-itunduei, xedapen gehigarri bakarrean adierazitakoa aplikatuko zaie.

2. artikulua.– Irakaskuntza-modalitatea.

1.– Modalitate Presentzialak (II. eranskina, III. eranskina eta IV. eranskina) aurrez aurre ematen diren irakaskuntzei egiten die erreferentzia. Halakoetan, heziketa-ziklo, espezializazio-ikastaro, espezializazio- programa edo C graduen kasuan, matrikula eskaintza osoko edo modulu bakoitzeko egiten da.

2.– Modalitate Birtual-erdipresentzialak (V. eranskina) Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuan (ULHZI) urrutitik ematen diren irakaskuntzei egiten die erreferentzia. Halakoetan, matrikula modulu profesional bakoitzeko egiten da.

3.– Irakaskuntza horietako bakoitzerako onarpen-prozedura I. eranskineko jarraibide komunei jarraikiz egingo da, baita, bidezkoa bada, dagozkion eranskinetan jasotako jarraibide espezifikoak aintzat hartuta ere.

3. artikulua.– Onarpen-prozesuan parte hartu behar ez duten ikasleak, baina bai matrikula prozesuan.

1.– Araubide presentzialeko irakaskuntzan, egoera hauetako batean daudenek ez dute ez eskaera aurkeztu beharrik, ez onarpen-prozeduran parte hartu beharrik, baina, hala ere, matrikula egin beharko dute:

a) Ikasle errepikatzaileak, aurreko ikasturtean egindako ikastetxe, ziklo, ikasturte eta hizkuntza-eredu berean matrikulatzen direnak.

b) Ikastetxe berean lehenengo mailatik bigarrenera igarotzen diren ikasleak.

c) Ziurtagiri profesionala (C gradua) lortzearekin lotutako prestakuntzaren bat egin nahi duten ikasleak, dela modalitate osoan, dela moduluka (gaitasun-ziurtagirien metaketa – B graduak). Jarraibideak III. eranskinean daude.

d) Espezializazio-programetan matrikulatuko diren ikasleak.

e) Ibilbide integratuko erdi-mailako lehen mailako ikasleak. Ibilbide integratuaren eskaintzaren barruan egindako oinarrizko ziklotik datozen ikasleak dira.

a), b) eta e) kasuetan, ikastetxeek bermatu egin beharko dute ikasleek matrikulatzeko aukera izango dutela. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren plazak erreserbatuko dira heziketa-ziklo eta maila bakoitzean. Interesdunak ekainaren 4tik 26ra bitartean egin beharko du matrikula, eta, hala egiten ez badu, galdu egingo du plaza erreserbatua izateko eskubidea.

c) kasuan, ikastetxeek C gradua eskainiko dute deskribatutako bi modalitateetako batean, hau da, eskaintza osoa edo modulukako eskaintza (B graduka), aurreikusitako hasiera-data baino lehen, III. eranskinean jasotako jarraibideekin bat etorritik.

d) kasuan, ikastetxeek enpresekin lankidetzan eskainiko dituzte espezializazio-programak, eta matrikula-prozesua IV. eranskinean xedatutakoaren arabera egingo da.

2.– Ziklo bereko bigarren maila egiteko lehenengo maila gainditu duten ikastetxea ez den beste batean matrikulatu nahi duten ikasleek espediente akademikoa lekualdatzeko eskaera aurkeztu beharko dute, ikasketekin jarraitzeko aukeratu duten ikastetxean, aurreko atalean adierazitako epea bukatu baino lehen.

Epe hori bukatuta plaza libreak geratuz gero bakarrik egin ahal izango da lekualdaketa eta matrikula.

3.– Halaber, ziklo bateko lehen maila gainditu eta lehenengo maila hori komuna duen beste titulazio bateko bigarren mailan matrikulatu nahi dutenek horretarako aukera izango dute soil-soilik artikuluko honetako 1. puntuan adierazitako epea bukatuta, plaza libreak geratzen badira.

4.– 2. eta 3. puntuetan, ez baldin badago eskaera guztiak artatzeko plaza libre nahikorik, aurreko mailako espediente akademikoko batez besteko nota onenaren arabera egingo da onarpena.

4. artikulua.– Onarpen-prozedurako egutegiak.

Plaza bat lortzeko prozeduran parte hartu behar dutenen onarpen-, esleipen- eta matrikula-prozeduraren datak eta epeak eranskin hauetako tauletan daude ezarrita, modalitate presentziala edo birtualaren arabera:

- II. eranskina: eskaintza osoko lanbide heziketa presentziala (D eta E graduak).
- III. eranskina: eskaintza osoko edo moduluko lanbide heziketa presentziala (C graduak).
- IV. eranskina: eskaintza osoko lanbide heziketa presentziala (espezializazio programak).
- V. eranskina: lanbide heziketa birtuala- erdipresentziala.

5. artikulua.– Hezkuntza-eskaintza eta plazak zehaztea.

1.– Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren ikastetxeen hezkuntza-eskaintza 1.1 artikuluan zehaztuta dago, eta barnean hartzen ditu eskainiko diren C graduak (ziurtagiri profesionalak), D graduak (heziketa-zikloak), E graduak (espezializazio-ikastaroak) eta espezializazio-programak, talde kopurua, txanda, plaza kopurua eta hizkuntza-ereduak. Hezkuntza-arloko eskumenak dituen sailak planifikatuko du eskaintza hori, agindu honi dagokion ikasturtean.

Ildo horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, eta betiere eskariaren arabera, eskaintza akademikoan aldaketak egin daitezkeela hasiera batean eskainitako zikloen, ereduaren eta txanden aldean. Are gehiago, hasiera batean eskainitako ziklo batzuk kendu ere egin daitezke, ez bada bermatzen taldea osatzeko gutxieneko ikasle kopurua egongo dela.

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak hezkuntza-eskaintzan egindako plangintza horren ondorioz, ikasleak behin betiko matrikulatu daitezkeen ezinbesteko baldintza izango da dagokion ziklo eta hizkuntza-ereduan taldea osatzeko gutxieneko ikasle kopurua bete izana; izan ere, hori da ziklo horretako eskaintza egiten jarraitzeko baldintza. Bestela, bertan behera utziko da.

Eskaintza webgune honetan egongo da eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/lheskaintza>

Eskainitako plaza kopurua ziklo bakoitzeko talde kopuruaren eta talde bakoitzeko pertsona kopuruaren arabera izango da.

2.– Taldeko gehieneko ikasle kopurua hauxe da:

– C graduetan:

Ziurtagiri profesionaletan 20 pertsona.

– D eta E graduetan:

Oinarrizko heziketa-zikloetan: 15 pertsona (salbuespenez, 20raino).

Hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituzten ikasleen kasuan, 12 pertsona.

Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetan: 25 pertsona.

Ibilbide integratuetan: 15 pertsona oinarrizko aldian eta 25 pertsona erdi-maila egiterakoan.

Espezializazio-ikastaroetan 20 pertsona.

– Espezializazio programetan:

15 pertsona.

3.– Eskaintza osoko LH presentzialaren irakaskuntzan (D eta E graduetan), ikastetxe publikoen zuzendaritzek edo itunpeko ikastetxe pribatuen titular diren pertsona fisiko eta juridikoek honela zehaztuko dute eskaintzaren plaza kopurua: baimendutako eskola-plazen gehieneko kopurua ken 3.1 artikuluan aipatzen diren ikasleentzako erreserbatutako plazak.

4.– Plazak erreserbatzea.

Agindu honetan jasotako irakaskuntzetan eskainitako plaza guztietatik, D eta E graduetan erreserbatuko dira modalitate presentzialesan, talde, txanda eta eredu bakoitzerako, eta modalitate birtualesan, modulu bakoitzerako:

- % 5, eskaeraren egunean % 33ko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatzen duten pertsonentzat, eta, oinarrizko mailako heziketa-zikloetan, % 10.

- % 5, eskaera egiten den egunean hezkuntza-saileko hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoa (HLPE) dituztenen erregistroan sartuta daudenentzat, salbu eta hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoa dituzten ikasleentzako ikaskuntza-ibilbide egokitua duen oinarrizko graduari.

- % 5, eskaeraren egunean goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari diren pertsonentzat, betiere Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan eta Goi-mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Ehuneko hori aplikatu ondoren, dezimal batekin ateratzen den kopurua bat baino txikiagoa bada, gutxienez plaza bat ziurtatuko da kolektibo bakoitzarentzat. Dezimal batekin ateratzen den zenbakia bat baino handiagoa bada, hurbileneko zenbaki naturalera biribilduko da, honako irizpide hauen arabera: soberakina 0,5etik beherakoa bada, beheko zenbaki naturalera biribilduko da; eta 0,5ekoa edo hortik gorakoa bada, hurrengo zenbaki naturalera.

Kupo horietarako erreserbatutako plazetan, talde bakoitzerako II. eranskinen hirugarren jarraibideko 8. eta 9. puntuetan ezarritako ordena errespetatuko da: lehenik, a) kuota, gero b) kuota, eta, azkenik, c) kuota.

Gainerako plazak esleitzean, aldez aurreko erreserbak aplikatu ondoren, kasu bakoitzean sartzeko bide bakoitzerako aurreikusitako kuotak hartuko dira kontuan, eta plazen % 50 emakumeentzat gordeko da plaza bat baino gehiago esleituta duten taldeetan.

Ehuneko hori aplikatu ondoren, dezimal batekin ateratzen den zenbakia bat baino handiagoa bada, hurbileneko zenbaki naturalera biribilduko da, honako irizpide hauen arabera: soberakina 0,5ekoa edo txikiagoa bada, zenbaki natural txikienera biribilduko da; eta 0,5etik gorakoa bada, hurrengo zenbaki naturalera.

Kuotaren batean eskainitako plaza guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean, II. eranskinen hirugarren jarraibideko 8. eta 9. puntuetan ezarritako ordena errespetatuz, lehenengo «a» kuota, gero «b» kuota eta, azkenik, «c» kuota.

5.– II. eranskinen (hirugarren jarraibidean) ezarritako kuotei esleitutako plazen batura ezingo da txikiagoa izan kuota horietan hasieran esleitu beharreko plazak baino.

Kuotetan plazak banatzearen emaitza dezimala bada, hurrengo zenbaki osora biribilduko da dezimal hori 0,5 edo handiagoa bada.

Zenbait kuotatan dezimal bera baldin badago eta esleitzeko moduan dauden plazak badaude, II. eranskineko hirugarren jarraibideko 8. eta 9. ataletan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio, hau da: lehenbizi «a», gero «b» eta, azkenik, «c».

6. artikulua.– Onarpen-prozedurari buruzko argibideak.

Onarpen-prozedurari buruzko informazioa Hezkuntza Sailaren webgune honetan egongo da eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-lh/>

Onarpen-eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, Hezkuntza sail honen titulartasuneko ikastetxe publiko, udal-titulartasuneko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatu guztiek informazio hau emango diete argibideak eskatzen dituzten ikasleen familiei edo legezko tutoreei, eta ikusgai jarriko dute ikastetxeko iragarki-taulan:

- Ikasleak onartzeko araudia.
- Eskaerak egiteko epea.
- Prozeduraren egutegiak.
- Ikastetxeko idazkaritzaren jendaurreko egutegia eta ordutegia eskaerak aurkezteko aldiari.

Gainera, esleipen-prozeduran zehar parte-hartzaileei buruz sortzen diren informazio eta zerrendak Ikasgunean (<https://ikasgunea.euskadi.eus>) kontsultatu ahal izango dira eta ezingo dira argitaratu ikastetxeetako iragarki-oholetan.

7. artikulua.– Euskara edo gaztelania erabiltzeko eskubidea.

1.– Agindu honen ondorioz ikasleek, familiek eta tutoreek administrazio publikoarekin dituzten harremanetan, euskara zein gaztelania erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

2.– Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeetako partaideek, euren jardunean, euskara eta gaztelania erabili ahal izango dute. Era berean bermatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak erabili ahal izatea aztergaien zerrendan, aktetan, ziurtagirietan eta, oro har, testu idatzietan.

8. artikulua.– Datu pertsonalak babestea.

Organo kudeatzaileek eskaeretan eskuratutako datu pertsonalak honako prozedura hau antolatzeko erabiliko dituzte: 2026-2027 ikasturtean, hezkuntza-sistemaren Lanbide Heziketako ziurtagiri profesionalak, heziketa-zikloak, espezializazio-ikastaro eta espezializazio-programetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko, plazak esleitzeko eta matrikulak egiteko prozedura, zeinaren arduradun baitira organo kudeatzaile horiek. Hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2026ko apirilaren 24a, ostirala

Era berean, eskatzaileek baimena ematen diote Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

9. artikulua.– Jarraibideak onestea.

Onetsi egiten dira eranskinetan jasotako jarraibideak, ikasleak onartu, plazak esleitu eta matrikula egiteari buruzkoak, bai eta ikastetxeek hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren aplikazio informatikoa erabiltzeko bildutako jarraibideak ere.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.– Itundu gabeko ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuen obligazioak.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa itunik gabe ematen duten ikastetxe pribatuek VI. eranskinean aipatzen den aplikazio informatikoan sartuko dituzte eskaintzen dituzten ziklo eta plazei buruzko datuak, bai eta egindako matrikulei buruzkoak ere, matrikula-aldi arruntaren hirugarren fasea hasten den egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, errekurtsoak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

IKASLEAK ONARTZEKO, PLAZAK ESLEITZEKO ETA MATRIKULATZEKO PROZEDURARI BURUZKO JARRAIBIDE KOMUNAK

Lehenengoa.– Aplikatu beharreko araudia.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako irakaskuntzetan, honako arau hauek aplikatu behar zaizkie onartze-prozedurari, esleipenari eta matrikulari:

a) 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

b) 3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzekoa.

c) 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena eta uztailaren 9ko 658/2024 Errege Dekretuak partzialki aldatu dueña.

d) 86/2025 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, prestakuntza-bide ez-formalen eta ikaskuntza informalen bidez lan-esperientziaren bidez eskuratutako oinarrizko gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeari buruzkoa.

e) 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena; otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua.

f) 1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuak aldatua, Ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), bai eta Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere.

g) 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

h) 110/2025 Dekretua, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuak arautzen dituena.

i) Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena.

j) Agindua, 2010eko urriaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, urrutiko prestakuntza telematikoaren modalitatean Lanbide Heziketako irakaskuntzen ezarpena eta antolamendua arautzen duena.

k) 110/2025 Dekretua, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei buruzkoa. VII. kapituluaren ezartzen da Urrutiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua ikaskuntza birtual eta digitalizatuen lanbide-heziketako ikastetxe integratua dela, eta ikastetxe horren helburu eta eginkizun espezifikoak ezartzen ditu, eta irakasleak eta langileak aipatzen ditu.

l) 30/2023 Dekretua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita 21/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena.

m) Titulu bakoitza ezartzen edo arautzen duen araudia.

n) Aplikatu beharreko beste araudi batzuk.

Bigarrena.– Onarpen-, esleipen- eta matrikula-prozeduraren definizio orokorrak.

Prozedura honi begira, honako definizio hauek finkatu dira:

a) Onarpena: aurrematrikula egiteko aldia hartzen du, eta dagokion dokumentazioa aurkeztean amaitzen da.

b) Esleipena: plazak esleitzeko eta behin-behineko zerrendak argitaratzeko fasea, erreklamazio-aldia eta behin betiko zerrendak argitaratzeko aldia hartzen ditu.

c) Matrikula: ohiko aldi bat hartzen du, hiru fase dituen, eta ezohiko beste aldi bat.

d) Plaza erabilgarriak: bete daitezkeen plaza libreak guztira.

e) Eskainitako plazak: plaza erabilgarriak ken errepikatzaileentzat gorde beharreko plaza kopurua.

f) Kuota: zenbait talderentzat sarbidearen arabera erreserbatutako plazen ehuneko, eskainitako plazetatik desgaitasunen bat dutenentzako eta goi-mailako kirolarientzako erreserbatutakoak kendu ondoren.

g) Lehentasuna: lehentasuna ematen du plazak esleitzerakoan, Oinarrizko Lanbide Heziketako kuota edo talde bakoitzean.

h) Hurrenkera: lehentasuna ematen du lehentasun-talde bakoitzeko plazak esleitzerakoan.

Hirugarrena.– D graduetan (oinarrizko, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak) eta E graduetan (erdi-mailako eta goi-mailako espezializazio-ikastaroak) sartzeko baldintzak eta bideak.

A) Lanbide heziketa presentzialeko irakaskuntzak.

1.– D Graduak.

1.1.– Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak (Hasierako Lanbide Heziketa).

Hasierako Lanbide Heziketak oinarrizko mailako heziketa-zikloak hartzen ditu barnean, eta askotariko ikasleei arreta emateko diseinatuta dago. Prestakuntza honetako ikasketak amaitzean, helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eta oinarrizko teknikariaren titulua egiaztatzea. Gaitasun profesionalak eta enplegarritasunerako gaitasunak eskuratzea helburu duen ziurtagiri profesional bat ere egiazta daiteke, bai eta ziurtagiri profesional baten zatiak ere.

Lortu nahi diren helburuetan oinarrituta, hainbat prestakuntza-ibilbide proposatzen dira, hainbat pertsona-kolektibori zuzenduak:

1.1.1.– Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak (Hasierako Lanbide Heziketa berrian hezkuntza indartzeko ohiko 2 ikasturteko ibilbidea).

Oinarrizko mailako heziketa-zikloak, ikasteko aukera gehien dituzten lehentasunak eta itxaropenak dituzten pertsonen zuzenduak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gaitasunak ingurune praktikoagoan lor ditzakete. Helburua DBHko titulua eta oinarrizko teknikariaren titulua lortzea izango da.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

a) Hamabost urte beteta edukitzea edo indarreko urte naturalean betetzea.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egin izana edo, salbuespen gisa eta irakasle-taldearen eta orientazioaren arduradunaren irizpidearen arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin izana.

c) Irakasle-taldeak familiei edo legezko tutoreei proposatzea interesdunak Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat has dezan.

Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez diren 15 eta 18 urte bitarteko gazteak salbuespena daude b) eta c) apartatuak betetzetik, eta garrantzitsua da prestakuntzaren jarraipena egitea ahalbidetuko dien hizkuntza jakitea.

1.1.2.– Oinarrizko mailako heziketa-zikloak, Hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak -HLPEak- dituzten ikasleentzako ikaskuntza-ibilbide egokituekin.

Oinarrizko mailako heziketa-zikloak dira, hiru ikasturteko ibilbidea dutenak, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, baldin eta desgaitasunen bat edo hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak direla-eta ohiko modalitatean sartzeko aukerarik ez badute.

Ziklo horietan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

a) Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Laguntzaren Premia Espezifikoaren Erregistroko Berritze-gune Zerrendan inskribatuta egotea, honako diagnostiko hauekin: desgaitasun intelektual arina, mugako gaitasun intelektuala, espektro autistaren nahasmendua (TEA), gaixotasun mentala, hizkuntzaren garapenaren nahasmendua, ikasteko zailtasun espezifikoa eta TDH-A.

Ikasleak ez baditu egin aurreko ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, hortaz, ez badago inskribatuta erregistro horretan, beste autonomia-erkidego bateko erregistro ofizial baliokide batean inskribatuta egon dela egiaztatzen duen dokumentazioa eduki behar da.

b) Gutxienez, DBHko 2. maila egin izana.

c) Tutorearen orientazio-aholkua izatea, irakasle orientatzaileen bermearekin, irakasle-taldearen proposamen hau jasotzen duena: ikasleak 3 urteko ibilbideko Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin dezala.

1.1.3.– Oinarrizko mailako heziketa-zikloak, prestakuntzako edo laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako ikaskuntza-ibilbide egokituekin.

Oinarrizko mailako heziketa-zikloak dira, 3 urteko ibilbidea dutenak, eta Lanbide Heziketako beste ikasketa batzuk egiteko aukera ematen duten aurretiazko ikasketak egiaztatzen ez dituzten 16 urtetik gorako pertsonen zuzenduta daude. Sartzeko, honako baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

a) 16 urte baino gehiago izatea.

b) Ez da egiaztatzen LHko ikasketetarako sarbidea ematen duen titulaziorik, ez eta DBH egin edo gainditu izana ere; garrantzitsua da heziketaren jarraipena egiteko behar den hizkuntza jakitea.

1.2.– Oinarrizko eta erdi-mailako ibilbide integratuak.

D graduko ibilbide integratua, prestakuntza-sekuentzia bakar batean oinarrizko mailako heziketa-ziklo bat eta erdi-mailako heziketa-ziklo bat biltzen dituena. Ibilbideak 4 ikasturteko iraupena du. Sekuentziaren etapa bakoitza amaitu eta gainditu ondoren, DBHko graduatu-titulua, oinarrizko teknikariaren titulua eta teknikariaren titulua egiaztatzeko aukera ematen du.

Beraz, oinarrizko lanbide-heziketako ziklo batean ohiko 2 urteko ibilbidea egin dezaketen pertsonen zuzendutako ibilbidea da, eta prestakuntza-eskaintzan jasota dagoen erdi-mailako ziklo batean jarraituko duela bermatzen zaie. Ikasle horiek lehen etapako onarpenean parte hartu behar dute, baina ez, ordea, bigarren etapakoan.

Ibilbide honetan sartzeko baldintzak, hortaz, Hasierako Lanbide Heziketa berrian 2 urteko ohiko ibilbidea duten oinarrizko heziketa-zikloetarako eskatzen diren berberak dira.

1.3.– Erdi-mailako heziketa-zikloak.

Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko, gutxienez honako baldintza hauetako bat bete behar da:

- a) DBHko graduatuaren titulua edukitzea.
 - b) Oinarrizko teknikariaren titulua edukitzea.
 - c) Teknikariaren titulua edukitzea.
 - d) C mailako prestakuntza-eskaintza gainditu izana, heziketa-zikloaren barruan.
 - e) Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko prestakuntza espezifikoko ikastaroa gainditu izana Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publikoetan edo pribatuetan.
 - f) Erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gainditu izana, edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana.
- d), e) eta f) letren babespean sartzeko kasuetan, proba egiten den urtean gutxienez 17 urte beteta izatea eskatuko da.
- g) Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan ezarritako erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko titulazio baliokideren bat izatea egiaztatzea:
- Teknikari laguntzailearen titulua.
 - Teknikari-titulua.
 - Goi-mailako batxiler-titulua, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren aurreko planen arabera emana.
 - Irakaskuntza ertainak erreformatzeko lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila gainditu izana.
 - Arte Aplikatuaren eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetan, 1963ko planaren hirugarren maila edo plan esperimentaleko ikasgai komunaren bigarren maila gainditu izana.
 - Batxilergo Bateratu eta Balioaniztuneko (BBB) lehen bi mailetan gehienez bi ikasgai gainditu gabe dituela egiaztatzea.
 - Hurrengo apartatuan ezarritako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko titulazio baliokideren bat egiaztatuta izatea.
 - Ondorio akademikoetarako, aipatutako ikasketen baliokideak diren beste ikasketa edo prestakuntza-ikastaro batzuk gainditu izana.

h) Atzerriko ikasketak lehenago zerrendatutako tituluren batekin homologatzeko egiaztagiria. Homologatze-prozedura ebatzi gabe baldin badago, baldintzapean izena emateko txartela onartuko da.

i) Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko gaitasunak egiaztatze prozeduraren bidez lortutako 3. mailako oinarrizko gaitasunak egiaztatzea.

j) Ziklo jakin batzuetan sartzeko baldintza espezifikoak:

- Larrialdietako eta Babes Zibileko erdi-mailako heziketa-zikloan sartzeko: izen-ematearen urte naturalean 18 urte beteta dituztenek izango dute lehentasuna.
- Ibilgailuak gidatzeko erdi-mailako heziketa-zikloan sartzeko: lehentasuna izango dute B gidabaimena dutenek.

1.4.– Goi-mailako heziketa-zikloak.

Goi-mailako zikloetara sartzeko, gutxienez honako baldintza hauetako bat bete behar da:

a) Batxilergoko titulua izatea.

b) Lanbide Heziketako teknikari titulua edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari titulua izatea.

c) Heziketa-zikloan sartutako C graduako prestakuntza-eskaintza gainditu izana.

d) Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publikoetan edo pribatuetan goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko prestakuntza espezifiko ikastaroa gainditu izana.

e) Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proba gainditu izana, edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana.

c), d) eta e) letren babesean sartzeko kasuetan, gainera, gutxienez hemeretzi urte beteta izatea eskatuko da, proba egiten den urtean edo prestakuntza hasten den urtean.

f) Lanbide Heziketako teknikari edo goi-mailako teknikari titulua edo unibertsitate-gradu bat izatea.

g) Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko titulazio baliokideren bat izatea egiaztatzea:

- Batxilergoko titulua, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritakoa.
- Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko (BBB) titulua edo titulu hori lortzeko irakasgai guztiak gaindituta izatea.
- Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitatetako bigarren maila gaindituta izatea.
- Unibertsitate bideratzeko ikasturtea edo unibertsitatearen aurreko ikasturtea gainditu izana.
- Teknikari espezialistaren titulua, goi-mailako teknikariaren titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea.
- Unibertsitate-titulua edo baliokidea.

h) Atzerriko ikasketak lehenago zerrendatutako tituluren batekin homologatzeko egiaztatzea: homologatze-prozedura ebatzi gabe baldin badago, baldintzapean izena emateko txartela onartuko da.

2.– E Graduak.

2.1.– Erdi-mailako espezializazio-ikastaroak.

Erdi-mailako espezializazio-ikastaroetara sartzeko, teknikari-tituluren bat eduki behar da, espezializazio-ikastaro bakoitza eta bere curriculumaren oinarrizko alderdiak ezartzen dituen oinarrizko araudian zehaztutakoa.

Hala ere, plaza hutsak dauden egoeretan, gehienez ere plazen % 20ra arte, plaza horiek hurrenkera honetan eskuratu ahal izango dira:

a) Lanbide Heziketako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua izatea, oinarrizko araudiaren arabera sarbidea ematen dutenen bestelakoa, eta ikastaro horri lotutako lanbide-arloan esperientzia egiaztatzea.

b) Lanbide Heziketako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua izatea, oinarrizko araudiaren arabera sarbidea ematen dutenen bestelakoa, eta aldez aurreko ezagutzak egiaztatzea gaitasun-proba, elkarrizketa pertsonal, sartzeko motibazio-eskaera, curriculum edo lan-esperientziaren bidez.

c) Lanbide-heziketako titulurik ez izatea, baina espezializazio-ikastaro bat egiteko gaitasunak egiaztatzea, gaitasun-proba, elkarrizketa pertsonal, curriculum edo lan-esperientziaren bidez. Kasu horretan, sartzeko baldintzak betetzearen mende dago titulua lortzea. Ikastaroa amaitu ondoren, sartzeko baldintza horiek egiaztatzen ez badira, ziurtagiri akademikoa egingo da.

2.2.– Goi-mailako espezializazio-ikastaroak.

Goi-mailako espezializazio-ikastaroetara sartzeko, oinarrizko araudian zehaztutako goi-mailako teknikari-tituluren bat eduki behar da, espezializazio-ikastaro bakoitza eta bere curriculumaren oinarrizko alderdiak ezartzen dituen oinarrizko araudian zehaztutakoa.

Hala ere, plaza hutsak dauden egoeretan, gehienez ere plazen % 20ra arte, plaza horiek hurrenkera honetan eskuratu ahal izango dira:

a) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulua izatea, oinarrizko araudiaren arabera sarbidea ematen dutenen bestelakoa, eta ikastaro horri lotutako lanbide-arloan esperientzia egiaztatzea.

b) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulua izatea, oinarrizko araudiaren arabera sarbidea ematen dutenen bestelakoa, eta aldez aurreko ezagutzak egiaztatzea gaitasun-proba, elkarrizketa pertsonal, sartzeko motibazio-eskaera, curriculum edo lan-esperientziaren bidez.

c) Lanbide-heziketako titulurik ez izatea, baina espezializazio-ikastaro bat egiteko gaitasunak egiaztatzea gaitasun-proba, elkarrizketa pertsonal, curriculum edo lan esperientziaren bidez. Kasu horretan, sartzeko baldintzak betetzearen menpe dago titulua lortzea. Ikastaroa amaitu ondoren, sartzeko baldintza horiek egiaztatzen ez badira, ziurtagiri akademikoa egingo da.

Espezializazio-ikastaroetan izena eman ahal izango dute ikastaro bakoitzera sartzeko ahalbidetzen duen titulazioa dutenek, VII. eranskineko VI. taulari jarraikiz: «Espezializazio-ikastaroetan sartzeko baldintzak».

B) Lanbide Heziketa Birtual-Erdipresentzialeko Irakaskuntzak.

Urrutiko Lanbide Heziketa esaten zaion Araubide Birtualeko irakaskuntzan, non prestakuntza erdipresentziala eta prestakuntza birtuala uztartzen baitira, baldintza hauek bete behar dira ikasleak onartzeko:

a) 2. mailako ziurtagiri profesionalei (C graduak) lotutako moduluetarako, horiek erdi-mailako (D gradua) zikloetako prestakuntza-moduluak direnak ere: 18 urte izatea.

b) 3. mailako ziurtagiri profesionalei (C graduak) lotutako moduluetarako, zeinak,aldi berean, goi-mailako zikloetako (D gradua) prestakuntza-moduluak baitira: 20 urte izatea (edo 19, tekniki-kari-titulua izanez gero).

Laugarrena.– Onartzeko eskaerak aurkeztea. Modua eta epea.

1.– Jarraibide hauek onartzen dituen aginduaren 3. artikuluan aipatzen denaren ildotik eskaerarik aurkeztu behar ez duten pertsonak ez dute parte hartuko esleipen-prozeduran. Pertsona horien matrikulazioa artikulua horretan aipatutako epean egin beharko da.

2.– Gainerako interesdunek, onartuak izan eta ikastetxe batean matrikula egin ahal izateko, ezinbestean aurkeztu beharko dute agindu honetan aurreikusitako prozeduran parte-hartzeko eskaera.

3.– Eskaera aurkezteko epea hautatutako irakaskuntza-modalitateari dagokion eranskinean jasotako egutegian adierazitakoa da.

4.– Modu hauetako batean aurkeztu ahalko dira eskaerak:

a) Online, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez, kasuan kasuko dokumentazioa erantsita. Eskaera online aurkezteko, sartu helbide honetan: (<https://ikasgunea.euskadi.eus>).

b) Presentzialki. Lehen tokian eskatutako ikastetxeko idazkaritzara joan behar da, bere ordutegia errespetatuz.

Halaber, urrutiko-erdipresentzialeko araubideko irakaskuntza egin nahi dutenek aukera dute Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuko idazkaritzara joateko.

Interesdunak indarrean dagoen NANA edo identifikatzeko agiria aurkeztuko du, eta eskatutako datu guztiak emango ditu, ikastetxe horretako langileek aplikazio informatikoan sar ditzaten. Datuak sartutakoan, ikastetxeak inprimaki bat erakutsiko dio eskatzaileari. Bertan jasoko dira eskatzailearen datu pertsonalak, eskatutako zikloak eta aurkeztutako dokumentuak.

Eskatzaileak sartutako datuak aztertuko ditu, eta, konforme baldin badago, inprimakia sinatuko du. Ikastetxeak, orduan, eskatzaileak sinatutako inprimakia zigilatuko, eta lehenago sartutako datuak grabatuko ditu. Inprimaki hori, sinatuta eta zigilatuta dagoenean, eskatzaileak egindako eskaeren frogagiria eta egiaztagiria izango da.

Eskatutako dokumentazio guztia entregatu ez bada, kasuan kasuko modalitatearen egutegian zehaztutako egunean aurkeztu beharko da. Dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaera «dokumentazioaren zain» egoeran geratuko da, eta ez da esleipen-prozesuan sartuko.

c) Zuzenean zerbitzuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetariko edozeinetan, manu horretan ezarritako baldintzen arabera eta zein ikastetxetarako den adierazita.

d) Dokumentazioa postetxean aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postetxeko langileek, ziurtatu baino lehen, data eta zigilua jar diezaioten eskaera-orriari. Hala egin ezean, ikastetxean sartu den datan aurkeztu dela ulertuko da.

5.– Eskaera-inprimaki ezberdinak egongo dira irakaskuntza-araubide eta -modalitatearen arabera, eta eskatu nahi diren plazez gain, honako hauek ere adierazi beharko dira bertan:

a) Ikaslearen identifikazio pertsonala, edo, hala badagokio, bere ordezkariarena, eta interesdunaren eta bere ordezkariaren helbide elektronikoa, jakinarazpenak jasotzeko.

b) Zer sarbide erabili den, hirugarren jarraibidean adierazitakoetatik. Pertsona batek sarbide bat baino gehiago erabiliz sartzeko baldintzak betetzen baditu, bakarra aukeratu ahalko du. Nolanahi ere, egutegian dokumentazioa aurkezteko zehaztutako epea bukatu baino lehen, hasieran aukeratutako sarbidea alda daiteke.

c) Hala badagokio, desgaitasunagatik, hezkuntza-laguntza behar bereziak izateagatik edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izateagatik plazak erreserbatzeko aukera baliatu den (ikus 5.4 artikulua).

6.– Aurrez aurre aurkeztu ez diren eskabideak lehenengo aukeran hautatutako ikastetxeak jaso behar ditu, aurrez aurre aurkezten direnekin egiten den moduan. Eskaera ez da baliozkotzat jotzen behar bezala jaso arte. Hori ikasgunean egiaztatzen da, eta bertan eskabidea egoera honetan dagoela agertuko da: «osatuta».

7.– Eskaerak aldatzeko aukera: eskaera aurkeztu dutenek aukera izango dute grabatutako datuak aldatu edo zuzentzeko, kasuan kasuko irakaskuntza-modalitatearen egutegian zehaztutako egunera arte. Epe hori bukatuta, ez da inolako aldaketa edo zuzenketarik onartuko, salbu eta sarbideei buruzkoak, 5.b) atalean zehazten denez.

Dagokion zuzenketa egiteko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik eskuratutako jatorrizko frogagiria sinatuta eta zigilatuta aurkeztea. Behin beharrezko zuzenketak eginda, eskaerak aurkezteko erabilitako prozedura errepikatuko da.

Dagokion zuzenketa egin eta beharrezko dokumentuak erantsi ondoren, eskaera «osatuta» egoeran dagoela egiaztatu beharko da onarpen-prozesuan parte hartu ahal izateko.

Bosgarrena.– Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskatzaile guztiek aurkeztu beharko dute, horretarako adierazitako epean, ikaslearen nortasuna eta adina egiaztatuko dituen dokumentu bat.

Online eskaera: NAN, AIZ edo pasaportearen indarrean EBn bizi direnentzat.

Aipatutako dokumentuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiko (DGP) nortasun-datuak kontsultatzeko zerbitzuak baliozkotzen baditu, dokumentu hori ez da entregatu beharko.

Aurrez aurreko eskaera: indarrean dagoen identifikazio-dokumentazioa.

Eskaera aurkezteko unean ikaslea adin txikikoa bada eta ez badago legez emantzipatuta, eskaera ikaslearen aitak, amak edo ikaslearen tutorea den pertsonak edo erakundeak aurkeztu behar du. Kasu horretan, familia-liburua edo eskaera aurkezten duena ikaslearen legezko ordezkaria dela egiaztatzeko dokumentua ere aurkeztu beharko da.

2.– Eskaeran desgaitasunen bat duten pertsonentzat edo goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat erreserbatutako plazetan onartua izatea aukeratu dutenek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, aurreko puntuan aipatutako nortasun-agiriaz gain:

a) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatiko erreserba: dagokion lurralde historikoko foru-aldundiko gizarte-zerbitzuetako departamentuak edo administrazio eskudunaren organo baliokideak emandako ziurtagiria.

b) EAeko HLPE erregistroan inskribatuta egoteagatiko erreserbaren kasuan, ez da erreserba horretarako ziurtagiririk aurkeztu behar.

c) Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izateagatiko erreserba: adierazpen ofizial bat, baldintza hori egiaztatzen duen kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiaren arabera.

3.– Aurreko apartatuetan adierazitakoaz gain, honako dokumentazio hau ere aurkeztuko da:

a) Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako, hasierako lanbide-heziketan hezkuntza indartzeko bi urteko ohiko ibilbiderako eta oinarrizko mailako eta maila ertaineko ibilbide integratuentzako:

- Ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin dezala proposatzen duen irakasleen orientazio-aholkua.
- Azken maila egin den ikastetxeko ikasketa-ziurtagiria, baldin eta ikasketak EAetik kanpo egin badira.

Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez diren 15 eta 18 urte bitarteko ikasleek ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko.

b) Hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituztenei zuzenduta dauden eta 3 urteko prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako:

- Ikasleak 3 urterako prestakuntza-ibilbidea duen Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin dezala proposatzen duen irakasleen orientazio-aholkua.
- Azken maila egin den ikastetxeko ikasketa-ziurtagiria, baldin eta ikasketak EAetik kanpo egin badira.

Ikasketak EAEn egin ez dituzten ikasleen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren HLPEen Erregistroan inskribatuta ez daudelako, beste erkidego bateko erregistro baliokide batean erregistratuta egon direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

c) 16 urte edo gehiago dituzten ikasleei zuzenduta dauden 3 urterako prestakuntza-ibilbideak, prestakuntza-zailtasun bereziak edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako ikaskuntza-ibilbide egokituak dituzten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetarako: ez da inolako dokumentazio akademikorik aurkeztuko.

d) Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetarako: zer sarbide aukeratu den. Horretarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Sarbidea titulazio akademiko ofizial bat bada: sartzeko alegatutako titulua edo titulua esku-ratzeko tasa ordaindu izanaren egiaztagiria. Ikasketak bukatu diren data dela-eta ezin bada bi dokumentu horietatik bat ere aurkeztu, baldintza hori egiaztatzeko, tituluari dagokion historia akademikoaren ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, DBHtik edo Batxilergotik egiten bada sarbidea; LHko titulu batetik egiten bada, ordea, ziurtagiri akademiko ofizial bat aurkez daiteke.

- Sarbidea iritsi nahi diren heziketa-zikloetan sartutako C graduako prestakuntza-eskaintza bat gainditu izana bada: lortu izana egiaztatzen duen dokumentua.
- Sarbidea baldin bada prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu izana, heziketa-zikloetara sartzeko prestatzekoa: ikastaroaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala.
- Sarbidea heziketa-zikloetara sartzeko proba edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana bada: probaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala (ez da beharrezkoa izango heziketa-zikloetara sartzeko probaren ziurtagiria aurkeztea, baldin eta EAEko 2013-2014 ikasturteko deialdian edo hurrengoetan egin eta gainditu bada. Hala ere, proba hori beste edozein autonomia-erkidegotan gainditu dutenek, edo EAEn baina aurreko ikasturteetan gainditu dutenek ziurtagiria aurkeztu beharko dute irakaskuntza-modalitateari dagokion egutegian zehaztutako epean).
- Sarbidea irakasgaiak edo gaiak gainditzea bada: ziurtagiri akademiko ofiziala.
- Ikasketak atzerrian egin dituzten eta titulazioa homologatzeke duten ikasleen kasuan, baldintzapean izena emateko txartela eta dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztatzea.

e) Espezializazio-ikastaroak: sarbidea ikastaro bakoitza egiteko gaikuntza ematen duen titulua denez, aurkeztu beharreko dokumentazioa da ikastarora sartzeko alegatutako titulua edo titulu hori jaulkitzeko tasa ordaindu izanaren agiria. Ikasketak bukatu diren data dela-eta ezin bada bi dokumentu horietatik bat ere aurkeztu, ziurtagiri akademiko ofizialearekin egiaztatu beharko da titulua.

Egiaztatu beharreko esperientziaren kasuan, esperientzia hori egiaztatzen duen agiria, lan-bizitza, lan-kontratua edo agiri baliokidea aurkeztu beharko da.

f) Araubide birtual-erdipresentzialeko irakaskuntzetarako, ikasle berriek EAEn errolatuta daudela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bai eta prestakuntza-moduluak gainditu dituztela egiaztatzen duen ziurtagiri akademiko ofiziala edo egiaztatutako gaitasun-atalekin (gaitasun-estandarrek) gaitasunak egiaztatzeko ziurtagiria ere.

4.– Eskatutako irakaskuntzari dagokion eranskinean jasotako lehentasun-irizpideei jarraikiz ikaslearen eskubide izan daitezkeen erreserbak, lehentasunak edo hurrenkeran lehenago joateko aukera erabiltzeko, horretarako eskubidea duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbu eta Administrazioak aurretiaz badu informazio hori.

5.– Eskatzaileak irakaskuntzetara sartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatuta geratzen den guztietan, plaza erreserbatzeko, lehentasuna izateko edo hurrenkeran lehenago joateko eskubidea ematen duen dokumentuetako bat aurkezten ez bada, ikasleak izan zezakeen hurrenkera galduko du. Egoera horietan, esleipena kupo orokorrean dagokion sarbidetik egingo da.

Seigarrena.– Plazak esleitzeko prozedura.

1.– 1. artikuluan aipatzen diren irakaskuntzetako plazak esleitzeko prozeduran parte hartu nahi dutenek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, horretarako ezarritako epean. Ez da eskaerarik onartuko ez ezarritako epearen aurretik ez ondoren.

2.– Plazak esleitzeko, aintzat hartuko da eskaeran adierazitako hurrenkera, plaza bat baino gehiago eskatzen bada.

3.– Eskaeran, datu hauek eman beharko dira plazei buruz:

- ikastetxea,

- ziurtagiri profesionala, zikloa, espezializazio-ikastaroa edo ibilbide integratua,
- txanda,
- maila,
- eredia,
- eleaniztasuna.

Urrutiko irakaskuntzarako modulu bana ere egongo da.

4.– Pertsona bakoitzak nahi adina plaza eskatu ahal izango ditu. Ez dago mugatuta eskaera bakoitzean eska daitekeen plaza kopurua. Eskaeran zenbat eta plaza gehiago eskatu, orduan eta aukera gehiago esleipen-prozeduran plaza bat lortzeko.

5.– Esleipen-prozedura desgaitasuna duten pertsonentzat, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituztenentzat eta goi-mailako eta errendimenduko kirolarientzat erreserbatutako plaza-zetatik hasiko da, 5.4 artikuluan ezarrita dagoen bezalaxe. Erreserbatutako zenbait plaza esleitu gabe geratzen badira, gainerako plazei batuko zaizkie.

Prozeduraren lehen urrats horretan parte hartu eta erreserbatutako plazarik lortu ez dutenak plazak esleitzeko prozedura arruntean sartuko dira.

6.– Berdinketarik izanez gero, ausazko esleipen-prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabilitako aplikazio informatikoak egina. Aplikazio informatikoak, eskaera grabatzeko unean, ausazko hurrenkera-zenbaki bat esleitu dio eskaerari, 1aren eta 99999aren arteko zenbaki oso bat, alegia. Berdinketak hautsi behar diren kasuetan erabiliko da zenbaki hori, horretarako gainerako irizpide guztiak agortu ondoren, betiere. Zenbaki txikienari emango zaio lehentasuna.

Zazpigarrena.– Batez besteko nota kalkulatzeko.

1.– Ikasketak EAEn egin dituzten ikasleen kasuan, hezkuntza-administrazioak aurretiaz du haien historia akademikoan lortutako batezbestekoa; beraz, kasu horretan ez da historia akademikoa aurkeztu beharko, esleipena egiteko erabiltzen den aplikazio informatikoak zuzenean hartuko duelako aintzat nota hori.

2.– Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozenek historia akademikoa aurkeztu beharko dute, eta bertan agertzen den batez besteko nota hartuko zaie aintzat.

3.– Hezkuntza-administrazioak ez badu aurretiaz nota hori, tituluaren lortutako batez besteko nota jasoko duen ziurtagiri akademiko ofiziala aurkeztu beharko da, plazak esleitzeko hurrenkera ezar-tze aldera. Ziurtagiri hori aurkezten ez duenari 5eko batez besteko nota emango zaio.

4.– Aurkeztutako ziurtagirian ez baldin badago batez bestekoa kalkulatu, honako kalkulu hau egin beharko da:

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloen kasuan, batez besteko nota kalkulatzeko Bigarren Hezkuntzan edo irakaskuntza baliokidean egindako maila bakoitzeko irakasgaietan ateratako noten batezbestekoa egingo da. Irakasgaiako nota kuantitatiboa bada, zenbaki hori bera hartuko da aintzat. Ikasgaiako nota kualitatiboa bada, kuantitatibo bilakatu beharko da, baremo honi jarraituz:

- Gutxiegi: 3.
- Nahiko: 5.

2026ko apirilaren 24a, ostirala

- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7,5.
- Bikain: 9.

Batez besteko notaren kalkulua bi dezimalekin adieraziko da.

Erdi- mailako heziketa-zikloetarako, DBHko graduatu-titulua edo oinarrizko teknikariaren titulua edukitzeagatik sartzen direnen batez besteko nota kalkulatzeko, DBHko 3. eta 4. mailetako espediente akademikoetan ageri diren ikasgaien batez besteko aritmetikoa erabiliko da, edo, bestela, oinarrizko heziketa-zikloko lanbide-moduluena eta proiektuena; gainerako kasuetan, egiaztatutako ikasketen arabera egingo da batez besteko nota. Ikasitako ikasgaiaren kalifikazioa kuantitatiboa bada, bertan agertzen den zenbakia hartuko da zehazki. Irakasgaiaren kalifikazioa kualitatiboa bada, kuantitatibo bihurtuko da, baremo honen arabera:

- Gutxiegi: 3.
- Nahiko: 5.
- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7,5.
- Bikain: 9.

Batez besteko notaren kalkulua bi dezimalekin adieraziko da.

Goi-mailako heziketa-zikloetarako eta espezializazio-ikastaroetarako batez besteko nota kalkulatzeko, egiaztatutako ikasketetan lortutako batezbestekoa hartuko da aintzat. Irakasgaiko nota kuantitatiboa bada, zenbaki hori bera hartuko da aintzat. Ikasgaiko nota kualitatiboa bada, kuantitatibo bilakatu beharko da, baremo honi jarraituz:

- Nahiko: 5.
- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7,5.
- Bikain edo bikain ohorezko matrikularekin: 9.

Batez besteko notaren kalkulua bi dezimalekin adieraziko da.

Batxilergoa edo DBHko titulu homologatua: homologazio-ebazpenean agertzen den nota. Nota agertzen ez bada, kontuan hartu beharko da Hezkuntzako Estatu Idazkaritzaren 2024ko uztailaren 3ko Ebazpenean ezarritakoa. Ebazpen horren bidez, Batxilergoko lehen maila baliozkotzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Espainiako graduatu-tituluekin homologatzeko banakako kredentzialen batez besteko notari buruzko informazioa ezartzen da, eta hura kalkulatzeko jarraibideak ematen dira.

Batxilergo homologatuaren tituluaren kasuan, modalitatea agertzen ez bada, Batxilergo Orokorra hartuko da.

Sarrera-proban gai: 5,00.

Baldintzapean izena emateko txartela: 5,00.

Zortzigarrena.– Onartutako eta ez-onartutako eskaeren behin-behineko zerrendak onetsi eta argitaratzea.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskuragarri jarriko da onartutako eta ez-onartutako eskaeren zerrenda, Ikasgunean <https://ikasgunea.euskadi.eus> eta dagokion ikastetxeko idazkaritzan. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: lehentasuna, eta, horren barruan, kasu bakoitzean ezarritako hurrenkera. Ikastetxeetako idazkaritzetan ere, zerrendak eskuragarri egongo dira prozeduran parte hartzen duten pertsonentzat.

Bederatzigarrena.– Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea.

1.– Behin-behineko zerrenden aurka, erreklamazioa aurkez daiteke ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean, presentzialki edo telematikoki, dagokion egutegian ezarritako epean.

2.– Pertsona batek erreklamazio bat aurkezten duenean, ikastetxeak dagokion aplikazio informatikoan jaso beharko du. Ondoren, aurkeztutako erreklamazioaren kopia bat inprimatu, zigilatu eta erreklamaziogileari emango dio, egiaztagiri modura.

Ikastetxeak jasotako erreklamazioa izapidetuko du, eta onartu edo ezetsi egin beharko du. Horretarako, ikastetxean aplikazio informatikoaren erreklamazioak ebazteko pantailara sartu eta erreklamazioa atzera bota edo osorik edo zati batean onartu beharko du.

Kasu bakoitzean, dagozkion laukitxoak markatuko ditu aplikazio informatikoan, eta, hala dago-kionean, erreklamazioan onartutako datuak aldatu.

3.– Erreklamazioak ebatzitzat joko dira behin betiko zerrendak argitaratzearekin batera. Edozein kasutan, hurrengo puntuan ezarritakoari jarraikiz egingo da.

Hamargarrena.– Behin betiko zerrendak onetsi eta argitaratzea.

1.– Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta gero, eskuragarri jarriko da onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda, Ikasgunean <https://ikasgunea.euskadi.eus> eta dagokion ikastetxeko idazkaritzan.

2.– Behin betiko zerrenden aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, hilabeteko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Aurkeztutako errekurtsuak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkariek.

Ikasleak behar bezala matrikulatu daitezkeela bermatzeko moduko epean eman beharko du ebazpena Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, eta ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Hamaikagarrena.– Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeak.

Onarpen-prozesuaren berme-batzordeak eratzeko eta haien funtzionamendurako urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango dituzte: bere lurralde-eremuko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesua gainbegiratzea eta hura arautzen duen araudia betetzen dela bermatzea, hargatik eragotzi gabe Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunak eta eskumenak.

Hamabigarrena.– Baldintzak objektiboki ez betetzearren matrikula ukatzea edo ofizioz deuseztatzea.

1.– Segurtasun- edo osasun-egoerekin lotutako baldintza psikofisiko zehatz batzuk eskatzen dituen profil profesionala duten lanbide-heziketako ikasketetan, hezkuntzaren arloan eskumena

duen sailak beharrezkoak diren frogagiriak aurkezteko edo proba jakin batzuk egiteko eskatu ahalko du, titulu bakoitza arautzen duen arauan hala jasota badago.

2.– Kasu horietan, atzera bota edo deuseztatu ahal izango da ikaslearen matrikula, Hezkuntza Saileko laguntza-zerbitzuen iritzia eskatu ondoren, eta, betiere, Hezkuntza Ikuskaritzak dagokion txostena egin ostean, baldin eta ondorioztatzen bada eskatzaileak ez dituela betetzen eskatzen zaizkion baldintza horiek.

3.– Interesdun batek izena emateko unean aurkeztutako datuei erreparatuta ikastetxeko arduradunek uste badute baldintza batzuk betetzen ez dituela, ikastetxearen zuzendaritzak, hilabeteko gehieneko epean, matrikula behin-behinekoa dela adierazi beharko dio ikasleari, eta lehenago deskribatutako prozedurari ekin beharko dio; gainera, egoeraren berri eman beharko dio hezkuntza ikuskaritzako lurralde-buruzagitzari. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak erabakiko du matrikula berretsi edo baztertu behar den.

4.– Hezkuntza-jarduera igaro ahala, ikusten bada arestian aipatutako baldintza objektiboan ez-betetze zantzurik, ikastetxearen zuzendariak egoki den prozedurari ekin beharko dio hilabeteko gehieneko epean, egoeraren berri eman zaion momentutik hasita. Era berean, horren berri eman beharko dio hezkuntza-ikuskaritzako lurralde-buruzagitzari. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak erabakiko du matrikula deuseztatu edo baztertu behar den ala ez.

5.– Gainera, matrikulatutako pertsonak heziketa-ziklo bateko matrikula ezeztatzeko eskatu ahal izango du, eta, horren ondorioz, baja emango zaio matrikulatuta dagoen lanbide-modulu guztietan; beraz, ez da ebaluatuko, eta ez da agertuko ikasturte amaierako ebaluazio-aktetan. Urrutiko irakaskuntza telematikoko lanbide-modulu batean matrikula baliogabetzen bada, baja emango da modulu horretan.

Ikastetxe publikoetan matrikulatuta dauden pertsonak ikastetxeko zuzendariari zuzenduko diote eskabidea. Eskatzailea ikastetxe pribatu batean matrikulatuta badago, atxikita dagoen ikastetxe publikoko zuzendariari bidaliko dio eskabidea. Eskabidea abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da, agiri bidez egiaztatuta, eta aldeko ebazpena emango da, baldin eta inguruabar hauek gertatzen bada:

Ikaslearen gaixotasun luzea.

Ikasten normal aritzea eragozten duen lanpostu batean hastera.

Ikasketetan normaltasunez aritzea eragozten duten betebeharrak edo familiarrak.

Ezohiko beste inguruabar batzuk, eskabidea zuzentzen zaion ikastetxeko zuzendariaren iritziz.

Lanbide-modulu bakoitzerako aurreikusitako deialdiak ez agortzeko, heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleek ziklo horietako lanbide-modulu bakoitzaren ebaluazioari eta kalifikazioari bi aldiz uko egin ahal izango diote.

Hamahirugarrena.– Onarpenerako organo eskudunak.

1.– Ikastetxe publikoetan, zuzendaritzari dagokio ikasleen onarpenari buruzko erabakia hartzea, aplikatu beharreko araudian eta agindu eta jarraibide hauetan adierazitakoari jarraituz. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Gizarte Kontseiluak, berriz, onarpenari buruzko informazioa eman beharko dute, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 127.e) eta 132.n) artikuluetan ezarritakoa betez.

2.– Itunpeko ikastetxe pribatuetan, ikastetxeko arauak ezartzen dituzten organoek erabakiko dute ikasleak onartzen dituzten ala ez, aplikatu beharreko araudian adierazitakoa betez.

2026ko apirilaren 24a, ostirala

II. ERANSKINA

LANBIDE HEZIKETA PRESENTZIALEAN, ESKAINTZA OSOAN, ONARTZEKO,
ESLEITZEKO ETA MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK

(D eta E Graduontzat).

Lehenengoa.– Onarpen-eskaera egiteko, onarpen-zerrendak argitaratzeko eta matrikulatzeko egutegia.

| <u>OHARRAK:</u> | ESKAINZA OSOAN PRESENTZIALAREN IRAKASKUNTZA |
|---|---|
| Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira. Ikastetxe batean egindako izapideak bertako idazkaritza irekita dagoen ordutegian egin beharko dira. | |
| Onarpen-eskaera aurkeztea (zikloko lehen mailarako bakarrik). | Maiatzaren 4tik 22ra Online: maiatzaren 22ra arte |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Maiatzaren 22ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskinetako bosgarren jarraibidean adierazitakoa) | Ekainaren 30era arte (dokumentazioa online edo aurrez aurre ikastetxe batean aurkezten dutenentzat) Ekainaren 19ra arte (gainerakoak) |
| Eskaera onartuen eta ez-onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Uztailaren 6a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Uztailaren 9ko 12:00ak arte |
| Eskaera onartuen eta ez-onartuen behin betiko zerrendak argitaratzea | Uztailaren 13a |
| Matrikula egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Ohiko epea <ul style="list-style-type: none"> I. fasea II. fasea III. fasea • Ezohiko epea | <ul style="list-style-type: none"> • Uztailaren 13tik 15eko 14:00ak bitartean • Uztailaren 17an • Uztailaren 21etik 22ra • Uztailaren 23 eta 24an eta irailaren 1etik urriaren 16ra bitartean |

Bigarrena.– Online nahiz aurrez aurre aurkeztutako onarpen-eskaeren berezitasunak.

Eskaera-inprimaki bakarria beteko da Eskaintza Osoaren Modalitateko Araubide Presentzialaren irakaskuntzetarako: D Graduak (Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketa zikloak) eta E Graduak (erdi-mailako espezializazio- ikastaroak eta goi-mailako espezializazio ikastaroak).

Inor plazarik gabe gera ez dadin, ikasleei gomendatzen zaie gutxienez hamar plaza eskatzeko eskaera betetzean.

Inprimakiak jarraibide hauen arabera bete behar dira:

- Eskatutako plaza bakoitzeko, datu hauek adieraziko dira: ikastetxea, zikloa, espezializazio- ikastaroa, maila, hizkuntza-eredua eta txanda.

- Eskatutako lehenengo plazaren ikastetxea erreferentzia-ikastetxea izango da onarpen-prozedura honekin zerikusia duten izapide guztietarako.
- Eskatutako plazak eskatzaileak aukeratutako hurrenkeran agertuko dira.
- Pertsona bakoitzak nahi adina plaza eska ditzake.

Hirugarrena.– Plazen esleipenari buruzko zehaztapenak.

1.– 3. artikuluan aipatzen denaren ildotik, eskaerarik aurkeztu behar ez duten pertsonak, hau da, errepikatzailleak, 1. mailatik 2. mailara igarotzen direnek, C gradu bat egin nahi dutenek edo espezializazio programa bat egin nahi dutenek, ez dute parte hartuko esleipen-prozeduran.

2.– Eskatzaile bakoitzari plaza bakar bat esleituko zaio.

3.– % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak, Hezkuntza Sailaren hezkuntza-laguntzako berariazko premien erregistroan (HLBP) inskribatutako hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzat eta goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak badira, 5. artikulua araberak, gordetako plazak esleitzeko, espediente akademikoak zehaztuko du lehentasun-ordena.

Erreserbatutako plazak banatzeko, gainerako plazak maila guztietan banatzeko erabilitako irizpide berberak erabiliko dira.

4.– Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak, Hasierako Lanbide Heziketa berriaren hezkuntza indartzeko ibilbide ohikoa: esleipena egiteko ezarritako taldeek ondoren adierazten diren letretan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Horrenbestez, ez zaie plazarik esleituko talde bateko eskatzaileei, baldin eta aurreko taldean plazarik esleitu ez zaien eskaerak badaude.

Hona hemen taldeak:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. edo 4. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, bide arruntaren bidez edo curriculum aniztasunaren bidez, betiere izen-ematearen urte naturalean 17 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. edo 4. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, bide arruntaren bidez edo curriculum aniztasunaren bidez, betiere izen-ematearen urte naturalean 16 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 15 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 16 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

e) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 15 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

f) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila erkidego honetan egin ez duten ikasleak, a) apartatutik e) apartatura bitarte ezarritako lehentasun berberarekin.

g) 17 urtetik gorako ikasleak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren maila egin dutenak edo, salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin dutenak; betiere, irakasleek proposatu badiete ikasleen familiei edo legezko tutoreei Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sar daitezen.

h) Aurreko kolektiboetan jasota ez dauden gainerako eskatzaileak, baldin eta inskripzioaren urte naturalean 15-18 urte dituztela egiaztatzen badute eta Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez badira eta prestakuntza jarraitu ahal izateko hizkuntza ezagutzen badute.

i) Inskripzioaren urte naturalean 18 urtetik gorako gainerako eskatzaileak, baldin eta Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez badira eta prestakuntza jarraitu ahal izateko hizkuntza ezagutzen badute.

Talde bakoitzean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, aintzat hartuko da historia akademikoaren batez besteko nota onena, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean adierazten den moduan kalkulatu. Hala ere, h) eta i) taldearen kasuan, adinaren arabera ezarriko da hurrenkera, txikienetik handienara.

5.– Oinarrizko mailako prestakuntza-zikloak, Hezkuntza Laguntza Berariazko Premiak dituzten ikasleentzako ikaskuntza-ibilbide egokituekin, 3 urteko ibilbidea, I. eranskineko hirugarren jarraibideko 1.1.2 puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Esleipena egiteko ezarritako taldeek ondoren adierazten diren letretan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Horrenbestez, ez zaie plazarik esleitu talde bateko eskatzaileei, baldin eta aurreko taldean plazarik esleitu ez zaien eskaerak badaude.

a) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-emaitea egiten den urte naturalean 16 urte betetzea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premien (HLBP) Erregistroan erregistratuta egotea, lehentasun-ordena honekin:

- 1.– Desgaitasun intelektual arina.
- 2.– Mugako gaitasun intelektuala.
- 3.– Espekto autistaren nahasmendua (TEA).
- 4.– Gaixotasun mentala.
- 5.– Hizkuntzaren garapenaren nahasmendua.
- 6.– Ikasteko zailtasun espezifikoa.
- 7.– TDH-A.

b) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-emaitea egiten den urte naturalean 15 urte betetzea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premien (HLBP) Erregistroan erregistratuta egotea, lehentasun-ordena honekin:

- 1.– Desgaitasun intelektual arina.
- 2.– Mugako gaitasun intelektuala.

3.– Espektrorik gabeko autistaren nahasmendua. (TEA).

4.– Gaixotasun mentala.

5.– Hizkuntzaren garapenaren nahasmendua.

6.– Ikasteko zailtasun espezifikoak.

7.– TDH-A.

c) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-emaitea egiten den urtean 16 urte baino gehiago izatea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premien (HLBP) Erregistroan erregistratuta egotea, lehen-tasun-ordena honekin:

1.– Desgaitasun intelektual arina.

2.– Mugako gaitasun intelektuala.

3.– Espektrorik gabeko autistaren nahasmendua (TEA).

4.– Gaixotasun mentala.

5.– Hizkuntzaren garapenaren nahasmendua.

6.– Ikasteko zailtasun espezifikoak.

7.– TDH-A.

d) Sartzeko baldintzak beteta, aurreko ataletan zehaztutakoez bestelako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak.

e) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eskolatutako ikasleak, hezkuntza-laguntzako berariazko premia espezifikoak dituztela egiaztatzen dutenak, a) taldetik d) taldera bitartean ezarritako lehen-tasun berarekin.

Talde bakoitzaren barruan berdinketarik izanez gero, ausazko prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabiliko aplikazio informatikoak egina. Aplikazio informatikoak, eskaera grabatzeko unean, ausazko hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskaerari, 1aren eta 99999aren arteko zenbaki oso bat, alegia. Berdinketak hautsi behar diren kasuetan erabiliko da zenbaki hori, horretarako gainerako irizpide guztiak agortu ondoren, betiere. Zenbaki txikienari emango zaio lehen-tasuna.

6.– Oinarrizko mailako Lanbide heziketa-zikloak, ikaskuntza-ibilbide egokitua prestakuntza-zailtasun bereziak dituztenentzat edo laneratzeko zailtasunak dituztenentzat, 3 urterako ibilbidea dutenentzat, 16 urtetik gorakoentzat, DBH egin edo gainditu ez dutenak eta zikloa zein hizkuntzatan ematen den badakitenak, prestakuntza jarraitu ahal izateko.

Kasu horretan, adinaren arabera ezarriko da lehen-tasuna, txikienetik handienera.

7.– Oinarrizko eta erdi-mailako ibilbide integratua. Kasu horretan, esleipena ibilbide integratuko oinarrizko gradu batean egingo da, eta prozesua hirugarren jarraibideko 4. puntuan zehaztutako bera izango da.

8.– Erdi-mailako heziketa-zikloak: esleipena egiteko, lehendabizi kuotak hartuko dira kontuan, eta, kuota bakoitzaren barruan, lehentasunak:

a) Plazen % 75a Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo Lanbide Heziketako oinarrizko teknikari titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.– Plazen % 60a Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua egiaztatzen dutenentzat. 2022-2023 ikasturtetik aurrera oinarrizko graduako titulua duten ikasle guztiek derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-tituluarekin sartuko dira.

a.1.1.– Plazen % 50 lehentasuna izango dute ikasketak azken hiru urte naturaletan amaitu dituzten pertsonak (2026ko ekainean titulaturakoak, 2025eko ekainean titulaturakoak eta 2024ko ekainean titulaturakoak).

a.1.2.– Plazen % 5a Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua Helduen Hezkuntzan (HHE) eskuratu dutenentzat.

a.1.3.– Plazen % 5a ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz baldintzapean izena emateko txartela aurkezten badute.

a.2.– Plazen % 15a Lanbide Heziketako oinarrizko teknikari titulua 2022ko ekainaren aurretik lortuta dutenentzat.

Kasu honetan VII. eranskineko I taulan zerrendatutako lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio. (I. taula – oinarrizko mailako heziketako ziklo batetik erdi-mailako heziketako ziklo batera sartzeko lehentasunak).

b) Plazen % 15 berariazko prestakuntza-ikastaro bat edo sarbide-proba bat gainditu duten pertsonari esleituko zaie.

b.1.– Plazen % 10a erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak gainditu dituztenentzat.

b.2.– Plazen % 5a berariazko prestakuntza-ikastaro bat gainditu dutenentzat.

c) Plazen % 10 teknikari titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenentzat edo erdi-mailako zikloetan sartzeko titulazio baliokideren bat duten pertsonentzat, honako irizpide hauen arabera:

c.1.– Plazen % 5 teknikari-titulua duten pertsonentzat edo sartzeko titulazio baliokidea dutela egiaztatzen dutenentzat, I. eranskineko hirugarren jarraibideko A ataleko 1.3 puntuko g letran ezarritakoaren arabera, lehentasun-hurrenkera honen arabera:

c.1.1.– Lanbide-arlo bereko zikloetako tituludunak.

c.1.2.– Beste lanbide-arlo batzuetako zikloetako tituludunak.

c.1.3.– Gainerako titulazioak.

c.2.– Plazen % 5 goi-mailako teknikariaren titulua duten pertsonentzat, edo sartzeko titulazio baliokidea egiaztatzen dutenentzat, I. eranskineko hirugarren jarraibideko A ataleko 1.4, g letran ezarritakoaren arabera, lehentasun-hurrenkera honen arabera:

c.2.1.– Lanbide-arlo bereko zikloetako tituludunak.

c.2.2.– Beste lanbide-arlo batzuetako zikloetako tituludunak.

c.2.3.– Gainerako titulazioak.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez besteko nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Berdinketarik izanez gero, ausazko esleipen-prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabilitako aplikazio informatikoak egin. Aplikazio informatikoak, eskaera grabatzeko unean, ausazko hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskaerari, 1aren eta 99999aren arteko zenbaki oso bat, alegia. Berdinketak hautsi behar diren kasuetan erabiliko da zenbaki hori, horretarako gainerako irizpide guztiak agortu ondoren, betiere. Zenbaki txikienari emango zaio lehentasuna.

Aukeretako baten (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean: lehenengo, a kuota, gero, b kuota eta, azkenik, c kuota. (Kuota bakoitzean a_1, a_2, \dots).

Gainera, talde bakoitzean dauden plaza guztien % 10 egongo da, sartu nahi den heziketa-zikloan C gradu bat edo gehiago gainditu duten pertsonentzat, teknikari-titulua lortzeko helburuarekin.

Plaza horiek lanbide-moduluetan kreditu osagarriak banatzeko zenbatzen dira, baina ez dira zenbatzen eskainitako plazetan.

Lehentasun bera dutenen arteko lehentasun-hurrenkera, lehenik eta behin, heziketa-zikloan sartutako C gradu bat edo gehiago egitean ordu gehien egiaztatzen dituztenak izango dira, eta, berdinketarik egonez gero, eskatzailearen adina, handienetik txikienera.

9.– Goi-mailako heziketa-zikloak: honako kuota eta lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

a) Plazen % 80a Batxilergoko titulua edo Lanbide Heziketako teknikari titulua egiaztatzen dutenentzat, honela banatuta:

a.1.– Plazen % 40, batxiler-titulua lortu dutela egiaztatzen dutenentzat, lehentasunez azken hiru ikasturteetan (2026ko ekainean titulatuak, 2025eko ekainean titulatuak eta 2024ko ekainean titulatuak), honako kuotak kontuan hartuz:

a.1.1.– Plazen % 35a Batxilergoko titulua egiaztatzen dutenentzat, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerari jarraituz:

1. Lanbide-heziketako titulu zehatza ezarri duen errege-dekretuak onarpen-irizpide gisa jarritako Batxilergoko modalitatea eta, hala badagokio, irakasgaia egin izana. Hemen daude jasota: VII. eranskina – III. taula – Batxilergoko titulu batetik sartzeko lehentasunak jaso baitira. (III. taula – batxilergoko titulu batetik sartzeko lehentasunak.).

2. Aurreko apartatuan aipatutako Batxilergoko modalitatea egin izana, baina ez irakasgaia.

3. Batxilergoko beste modalitate bat egin izana.

a.1.2.– Plazen % 5a ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz baldintzapean izena emateko txartela aurkezten badute.

a.2.– Plazen % 40 Lanbide Heziketako teknikari titulua egiaztatzen dutenentzat, lehentasunez azken hiru ikasturteetan lortua, eta VII. eranskineko II. taulan zerrendatutako lehentasun-hurrenkerari jarraituz. (II. taula – erdi-mailako titulu batetik goi-mailako titulu batera sartzeko lehentasunak).

b) Plazen % 15a berariazko prestakuntza-ikastaro bat edo sarbide-proba bat gainditu duten pertsoneri esleituko zaie.

b.1.– Plazen % 7,5a goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak gainditu dituztenentzat.

b.2.– Plazen % 7,5a berariazko prestakuntza-ikastaro bat gainditu dutenentzat.

c) Plazen % 5 goi-mailako teknikari-titulua duten pertsonentzat edo sartzeko titulazio baliokidea dutela egiaztatzen dutenentzat, I. eranskineko hirugarren jarraibideko A ataleko 1.4 puntuko g letran ezarritakoaren arabera, lehentasun-hurrenkera honen arabera:

c.1.– Lanbide-arlo bereko zikloetako tituludunak.

c.2.– Beste lanbide-arlo batzuetako zikloetako tituludunak.

c.3.– Gainerako titulazioak.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez besteko nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Aukeretako batean (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean: lehenengo, a kuota, gero, b kuota eta, azkenik, c kuota. (Kuota bakoitzean a1, a2...).

Gainera, talde bakoitzean dauden plaza guztien % 10 egongo da, sartu nahi den heziketa-zikloan C gradu bat edo gehiago gainditu duten pertsonentzat, goi-mailako teknikari-titulua lortzeko helburuarekin.

Plaza horiek lanbide-moduluetan kreditu osagarriak banatzeko zenbatzen dira, baina ez dira zenbatzen eskainitako plazetan.

Lehentasun bera dutenen arteko lehentasun-hurrenkera: lehenik eta behin, heziketa-zikloan sartutako C gradu bat edo gehiago egitean ordu gehien egiaztatzen dituztenak izango dira, eta, berdinketarik egonez gero, eskatzailearen adina, handienetik txikienera.

10.– Espezializazio- ikastaroak:

a) Erdi-mailako espezializazio-ikastaroak: lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

a.1.– Plazen % 100 espezializazio-ikastarora sartzeko arauz ezarritako titulua aurreko hiru ikasurteetako batean eta EAEn eskuratu duten ikasleak.

a.2.– Plaza libreak geratzen badira, eta plazen % 20 gehienez, honako talde hauentzat, lehentasun honen arabera:

a.2.1.– Espezializazio-ikastarora sartzeko araudiak ezartzen duen titulua ez den beste titulu bat dutenak, baina ikastaroari lotutako esperientzia egiaztatzen dutenak.

a.2.2.– Espezializazio-ikastarora sartzeko araudiak ezartzen duen titulua ez den beste titulu bat dutenak, ikastaroari lotutako ezagutzak egiaztatzen badituzte.

a.2.3.– Titulurik ez izanik, egin nahi den ikastaroari lotutako ezagutzak egiaztatzen dituztenek.

b) Goi-mailako espezializazio- ikastaroak: lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

b.1.– Plazen % 100 espezializazio-ikastarora sartzeko arauz ezarritako titulua aurreko hiru ikas-
turteetako batean eta EAEn eskuratu duten ikasleak.

b.2.– Eskainitako plaza guztiak talde horretakoekin betetzen ez badira, eta eskaera badago,
gainerako plaza horiek eskaini ahal izango dira talde hauentzat, lehentasun honen arabera:

b.2.1.– Espezializazio-ikastarora sartzeko araudiak ezartzen duen titulua ez den beste titulu
bat dutenak, baina ikastaroari lotutako esperientzia egiaztatzen dutenak.

b.2.2.– Espezializazio-ikastarora sartzeko araudiak ezartzen duen titulua ez den beste titulu
bat dutenak, ikastaroari lotutako ezagutzak egiaztatzen badituzte.

b.2.3.– Titulurik ez izanik, egin nahi den ikastaroari lotutako ezagutzak egiaztatzen dituztenek.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dago-
kion espediente akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio. Batez besteko
nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Laugarrena.– Matrikulazio-prozedura, lehen mailako zein bigarren mailako pertsona guztientzat.

1.– Matrikulak presentzialki egin beharko dira ikastetxeetako idazkaritzetan. Matrikula online
egin ahal izango da ohiko epean I. eta II. Faseetan.

2.– Esleipen-prozeduran parte hartu beharrik ez duten ikasleek (errepikatzaile izateagatik edo
ikastetxe berean 1. mailatik 2. mailara igotzeagatik) epe honetan egingo dute matrikula: ekai-
naren 4tik 26ra, biak barne. Hori egin ezean, ikasten ari diren zikloko plazarik uko egiten diotela
ulertuko da.

3.– Pertsona bat ezingo da matrikulatu bi ziklotan (salbu eta ordutegiak bateragarriak badira),
ez eta ziklo bateko matrikula aldi berean gauzatu ere bi irakaskuntza-modalitate desberdinetan.

4.– Honela egingo da matrikulazio-prozedura:

• Ohiko epea (uztailaren 13tik 22ra arte).

a) Epe horretan esleipen-prozeduran parte hartu duten ikasleak baino ezingo dira matrikulatu.

b) Hiru fase egongo dira, eta horietako bakoitzaren barruan beste esleipen-prozedura bat
egingo da libre geratu diren eta beren lehenengo aukeran plazarik lortu ez duten pertsonekin.

c) I. eta II. fasean beren lehenengo aukeran plaza lortu dutenak bakarrik matrikulatuko dira.
Matrikula online egin ahal izango da. Agindu honen 5. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, inte-
resdunak eskatu arren, eskaintzatik kendu diren aukerak aintzat hartu gabe esleituko da
lehenengo aukera hori.

d) Fase bakoitzaren matrikula-prozesua hasi aurretik, matrikulatzeko eskubidea duten pertso-
nen zerrenda bat egingo da. Matrikula egiteko epea bukatuta, ez baldin badute eskubide hori
erabili, galdu egingo dute, eta ezohiko epean baino ezingo dira matrikulatu.

e) III. fasean, fase horretan matrikulatzeko eskubidea duten pertsonen zerrendan agertzen
direnez gain, esleipen-prozeduran parte hartu eta plazarik lortu ez duten ikasleak ere matriku-
latuko dira, plaza libreak geratzen badira, betiere.

I. fasea: (uztailaren 13tik 15era).

II. fasea: (uztailaren 17a).

III. fasea: (uztailaren 21etik 22ra).

- Ezohiko epea (uztailaren 23a eta 24a eta irailaren 1etik urriaren 16ra).

Aldi horretan, I. eranskineko hirugarren jarraibidean maila eta ibilbide bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiak matrikulatu ahal izango dira.

Bosgarrena.– Esleipen- eta matrikulazio-prozesuan sortutako egoerak.

Onartua: egoera hori agertuko da ikasleak bere lehenengo aukeran plaza lortu duenean.

Behin-behinean onartua, hobetzeko aukerarekin: egoera hori lehen bi faseetan erakutsiko da, ikaslea plaza horretan onartua izan bada, baina ez bada bere lehen aukera esleigarria. Ikasle horrek ondorengo esleipen-fase batean parte hartuko du berriz ere, eta aukera hobea eman ahal izango zaio.

Beste aukera batean onartua: egoera hau agertzen da eskatutako aukera guztietatik, ikaslea aukera hobean onartua izan denean.

Ez onartua, behin-behinekoz: lehenengo bi faseetan erakutsiko da, ikasleari plazarik esleitu ez zaionean, baina oraindik esleitzeko azken fasea geratzen denean.

Ez onartua: azken fasean agertzen da, ikasleak plazarik lortu ez duenean.

Matrikulatua: ikasleak matrikulatzeko eskubidea aldeztatik baliatu duen faseetan agertzen da.

Beste aukera batean matrikulatuta: aukera onenean matrikulatzeko eskubidea baliatu duen ikasle baten aukeretan agertzen da.

Baztertua, ez matrikulatzeagatik: ikaslea onartu zuten matrikulatzeko eskubidea erabili ez zuen aukeretan agertzen da.

Eskaintza ezabatua: eskaintzen ez diren aukeretan agertzen da.

DBHO tituluaren arabera baztertua: ikasleak DBHO titulua duenean egin diren Oinarrizko Mailako LHko aukeretan agertzen da.

III. ERANSKINA

C GRADUETAN ONARTZEKO ETA MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK

LANBIDE-HEZIKETA PRESENTZIALEAN

Lehenengoa.– C graduako eskaintza.

659/2023 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarrian, profesionaltasun-ziurtagirien eta C graduako ziurtagiri profesionalen arteko baliokidetasuna ezartzen da. Honako hau xedatzen da:

1.– Profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako erregulazioaren arabera emandako 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak 1. mailako ziurtagiri profesionalen baliokidetzat joko dira ondorio guztietarako (profesionalak eta enplegu publiko eta pribatuetara sartzekoak).

2.– 34/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako erregulazioaren arabera emandako 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak 2. mailako ziurtagiri profesionalen baliokidetzat joko dira ondorio guztietarako (profesionalak eta enplegu publiko eta pribatuetara sartzekoak).

3.– 34/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako erregulazioaren arabera emandako 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak 3. mailako ziurtagiri profesionalen baliokidetzat jotzen dira ondorio guztietarako (profesionalak eta enplegu publiko eta pribatuetara sartzekoak).

Errege Dekretu berean, lehenengo xedapen iragankorrean, profesionaltasun-ziurtagirien antolamenduaren indarraldia ezartzen da, eta berariaz adierazten da, erregelamendu bidez aldatu arte, indarrean jarraituko duela ziurtagiri horiek ezartzen dituzten errege-dekretuetan jasotako profesionaltasun-ziurtagirien antolamenduak, eta haien eskaintza Lanbide Heziketako Sistemaren C graduetan integratuko dela, ziurtagiri profesional izenarekin.

Horregatik, profesionaltasun-ziurtagiriek eta ziurtagiri profesionalak (C graduak) batera jarraituko dute. C graduak egungo profesionaltasun-ziurtagiriak ordeztuko dituzte, argitaratzen diren heinean.

Onarpen-aginduaren 5. artikuluan ezartzen denez, C graduak (ziurtagiri profesionalak) agindu honen aplikazio-eremuko ikastetxeen hezkuntza-eskaintzan sartuta daude. Nabarmendu behar da eskaintza Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak planifikatutakoa izango dela, aginduaren aplikazio-eremuan sartutako ikastetxeen eskabideak jaso ondoren.

Bigarrena.– Onartzeko prozedura.

Onarpen-prozesua C graduak eskaintzen dituen ikastetxe bakoitzaren arabera izango da. Ikastetxe bakoitzak ezarriko ditu C gradu bakoitza emateko baldintzak, bai eta horiek eskatzeko egin beharreko izapideak ere.

Eskabideak onartzeko 20 eguneko epea ireki beharko da, zentro bakoitzean C gradu bakoitza emateko plangintzaren arabera. Ikasturtearen hasierarako eta amaierarako ezarritako datak errespetatuko dira.

Onartzeko epea behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da, prestakuntza hasi aurreko esleipen- eta matrikula-prozesua antolatu ahal izateko.

Eskabidea online edo aurrez aurre egin ahal izango da, C gradua emango duen ikastetxeko idazkaritzan. Eskabide bakoitzean, interesdunak C gradu batean edo gehiagotan eman ahal izango du izena, eta irakaskuntza osoaren modalitatean (2. eta 3. mailetan sartzeko baldintzak betez) eta/edo prestakuntza-moduluka egiteko eskatu ahal izango du.

Ikastetxean ematen diren C graduak sartu ahal izango dira, osorik edo moduluka aukeratuta, lehentasun-hurrenkeran.

Eskabideak aztertu ondoren, ikastetxe bakoitzak ezarriko du irakatsi beharreko modalitatea (osoa edo moduluka). Eranskin honetako bosgarren jarraibidean ezarritako irizpideen arabera esleituko dira plazak.

Hirugarrena.– C graduatarako sarbideak eta baldintzak.

Ziurtagiri profesionalak (C graduak) eskuratzeko, lehentasuna izango dute langileek, landunek edo langabeek, edo 18 urtetik gorako gazteek. Salbuespenez, hezkuntza-sistema utzi duten 16 urtetik gorako gazteek egin ahal izango dituzte ikasketak.

1.– Eskaintza osoaren modalitateko betekizunak.

Baldintza hauek bete beharko dira:

a) 1.mailako ziurtagiri profesionalak: ez da eskatzen sartzeko baldintzarik.

b) 2.mailako ziurtagiri profesionalak: baldintza hauetako bat betetzea eskatzen da:

b.1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren baliokidea izatea sartzeko.

Sartzeko, honako baldintza hauetakoren bat bete beharko da:

- Erdi-mailako zikloetan sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu izana.
- Erdi-mailako zikloetara sartzeko proba bat gainditu izana.
- Oinarrizko teknikariaren titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea.
- Unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana 25 urtetik gorakoentzat eta/edo 45 urtetik gorakoentzat.
- 3.mailako oinarrizko gaitasunak egiaztatzea, otsailaren 11ko 86/2025 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- Dagokion prestakuntza probetxuz egiteko beharrezkoak diren funtsezko kompetentziak egiaztatzea.

b.2.– 2. mailako ziurtagiri profesionala (C gradua) izatea.

b.3.– Egin beharreko eskaintzan jasotako gaitasun-ziurtagiria (B maila) izatea.

b.4.– Lanbide-arlo bereko 1. mailako ziurtagiri profesionala izatea.

c) 3.mailako ziurtagiri profesionalak: baldintza hauetako bat betetzea eskatzen da:

c.1.– Teknikari-titulua, goi-mailako teknikari-titulua, batxiler-titulua edo horren baliokidea izatea.

Sartzeko, honako baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Goi-mailako zikloetan sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu izana.

- Goi-mailako zikloetara sartzeko proba bat gainditu izana.
- Teknikari titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea.
- Unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana 25 urtetik gorakoentzat eta/edo 45 urtetik gorakoentzat.
- 14/1970 Legeak araututako Batxilergoko ikasketak gainditu izana.
- Batxilergoko hirugarren maila gainditu izanaren ziurtagiria izatea, 14/1970 Legeak arautua.
- 4. mailako oinarrizko gaitasunak egiaztatzea, otsailaren 11ko 86/2025 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- Dagokion prestakuntza probetxuz egiteko beharrezkoak diren funtsezko kompetentziak egiaztatzea.

c.2.– 3. mailako ziurtagiri profesionala (C maila) izatea.

c.3.– Egin beharreko eskaintzan jasotako gaitasun-ziurtagiria (B maila) izatea.

c.4.– Lanbide-arlo bereko 2. mailako ziurtagiri profesionala (C maila) izatea.

2.– eskaera moduluka egiterakoan, C graduako modalitateko betekizunak.

Kasu horretan, ez da sarbide-baldintzarik eskatuko C graduako moduluak egiteko.

Laugarrena.– Ziurtagiri profesionalak (C graduak) eskuratu ahal izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Sarbidea titulazio akademiko ofizial bat bada: sartzeko alegatutako titulua edo titulua esku-ratzeko tasa ordaindu izanaren egiaztatzea. Ikasketak bukatu diren data dela-eta ezin bada bi dokumentu horietatik bat ere aurkeztu, baldintza hori egiaztatzeke, tituluari dagokion historia akademikoaren ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik edo Batxilergotik egiten bada sarbidea; Lanbide Heziketako titulu batetik egiten bada, ordea, ziurtagiri akademiko ofizial bat aurkez daiteke.

- Sarbidea profesionaltasun-ziurtagiri bat bada, ziurtagiri hori lortu dela egiaztatzen duen agiria.

- Sarbidea egin beharreko eskaintzan jasotako gaitasun-ziurtagiria bada, hura lortu dela egiaztatzen duen agiria.

- Heziketa-zikloetara sartzeko ikastaroa gainditzea baldin bada sarbidea: ikastaroaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala.

- Sarbidea heziketa-zikloetara sartzeko proba edo 25 urtetik gorakoak nahiz 45 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana bada: probaren amaierako notaren ziurtagiri ofiziala (ez da beharrezkoa izango heziketa-zikloetara sartzeko probaren ziurtagiria aurkeztea, baldin eta EAEn 2013-2014 ikasturteko deialdian edo hurrengoetan egin eta gainditu bada. Hala ere, proba hori beste edozein autonomia-erkidegotan gainditu dutenek, edo EAEn baina aurreko ikasturteetan gainditu dutenek ziurtagiria aurkeztu beharko dute irakaskuntza-modalitateari dagokion egutegian zehaztutako epean).

- Sarbidea maila-gaitasunen egiaztapena bada, hori ziurtatzen duen agiria.

Bosgarrena.– C graduak esleitzeko prozesua.

Onarpena, bigarren jarraibidean ezarri den bezala, ikastetxe bakoitzean egingo da, eta plazak esleitzeko jarraibide hauek hartuko dira kontuan:

1., 2. eta 3. mailetako ziurtagiri profesionaletarako (maila guztietan) kuota eta lehentasun berberak aplikatzen dira:

Taldeei esleitzeko, kuota eta lehentasun hauek hartuko dira kontuan:

a.1.– Plazen % 60 langabezian dauden 18 urtetik gorako langileentzat.

a.2.– Plazen % 40 jarduneko langileentzat, 18 urtetik gorakoentzat.

Plaza libreak geratzen badira, 16 urtetik gorakoei esleituko zaizkie, baldin eta ez badute egiaztatzen ez DBHko titulurik, ez Lanbide Heziketako irakaskuntzetara sartzeko beste titulurik, baina egiaztatzen badute ikasketak ematen diren hizkuntza badakitela, ikasketen jarraipena egin ahal izateko.

Talde bakoitzaren lehentasuna adinaren arabera izango da, handienetik txikienera.

Seigarrena.– Matrikulatzeko prozedura.

Plazak esleitu ondoren, matrikula aurrez aurre egingo da ikastetxeko idazkaritzan. Horretarako, gainerako irakaskuntzetarako erabiltzen den matrikula-aplikazio informatikoa erabiliko da (D eta E graduak eta espezializazio-programak).

Matrikulak egiteko epea ikastetxe bakoitzean ezarriko da, C gradu bakoitzeko prestakuntzaren hasiera-dataren arabera, eta plaza hutsen kasuan, matrikula irekita geratuko da.

Prestakuntza hasi ondoren, matrikula irekita dagoenez, plaza libreak geratzen badira, sartzeko baldintzak betetzen dituen edozein pertsona matrikulatu ahal izango da, betiere ikastetxean uste badute hasitako prestakuntzaren jarraipena egin dezakeela ziurtagiria lortzeko.

IV. ERANSKINA

MODALITATE PRESENTZIALEKO ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMETARA SARTZEKO ETA
MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK

Lehenengoa.– Espezializazio-programen eskaintza.

Onartzeko aginduaren 5. artikuluan ezartzen denez, espezializazio-programak agindu honen aplikazio-eremuko ikastetxeen hezkuntza-eskaintzan sartuta daude. Nabarmendu behar da eskaintza Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak planifikatutakoa izango dela, aginduaren aplikazio-eremuan sartutako ikastetxeen eskabideak jaso ondoren.

Programa horien helburua da EAEko sektore estrategiko batzuek eskatzen dituzten kualifikazio bereziko beharrak asetzea, eta lanbide-heziketa ikasten duten pertsonen enplegarritasuna hobetzea, bai eta tituludunena eta profesional kualifikatuena ere, produkzio-sektore jakin batzuek eskatzen dituzten ezagutzetan sakontzea eta konpetentzia profesionalak zabaltzea ahalbidetuz.

Horregatik, programa horiek emateko eskaera egin ahal izateko eta, horrela, eskaini ahal izateko, baldintza bat izango da ikastetxeek enprekin lankidetzan aritzea programa horiek egiteko ikasle egokienak hautatzeko.

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza arduratuko da ikastetxe bakoitzean eman beharreko programak planifikatzeaz, baina onarpen-prozesua espezializazio-programak eskaintzen dituen ikastetxe bakoitzaren erantzukizuna izango da.

Bigarrena.– Espezializazio-programetan sartzeko baldintzak.

Espezializazio-programetan sartzeko, beharrezkoa da teknikari-tituluren bat edo goi-mailako teknikari-tituluren bat izatea, espezializazio-programa bakoitzak ezartzen duen oinarrizko araudian zehaztuta dagoena, bai eta hori emateko oinarrizko alderdiak ere.

Beharrezkoa da tituludun horiek harremana izatea programekin lankidetzan aritzen den enpresarekin, prestakuntza-praktikak egin dituztelako edo prestakuntza duala egin dutelako bertan.

Espezializazio-programa bakoitzarekin lankidetzan diharduen enpresako profesionalak ere eskuratu ahal izango dituzte.

VII. eranskineko V. taulan («Espezializazio-programetan sartzeko baldintzak»), espezializazio-programetan oinarrizko araudiaren arabera sartzeko aukera ematen duten tituluak daude.

Hirugarrena.– Matrikula egin ahal izateko egiaztatu beharreko dokumentazioa.

Espezializazio-programa batean sartzeko modua ikastaro bakoitzerako gaikuntza-titulua denez, aurkeztu beharreko dokumentazioa sartzeko alegatutako titulua da, edo hura emateko tasa ordaindu izanaren egiaztagiria. Ikasketen amaiera-data dela-eta ezin bada aurkeztu aipatutako bi dokumentuetako bat ere, ziurtagiri akademiko ofizialarekin egiaztatu beharko da titulua.

Ikastetxe bakoitzak egiaztatuko du programa bakoitzeko enpresa laguntzaileek hautatu dituztela eskatzaileak, enpresa laguntzailearen ziurtagiri baten bidez.

Programa garatzen den enpresako profesionalak izateagatik sartzen bada, parte hartzeko interesa egiaztatzen duen enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2026ko apirilaren 24a, ostirala

Laugarrena.– Espezializazio-programetan onartzeko prozesua.

Onarpena ikastetxe bakoitzean egingo da. Horretarako, aurrez zehaztutako baldintzak betetzen dituzten interesdunak harremanetan jarri beharko dira programak ematen dituzten ikastetxeekin.

Ikastetxeetan, eta jasotako eskabideekin, plazak esleituko dituzte, honako jarraibide hauek kontuan hartuta, baldin eta espezializazio-programa horietarako eskaintza baino eskari handiagoa badago.

Talde bakoitzean plaza kopuru bat gordeko da enpresa laguntzaileek proposatutako profesionalentzat.

Enpresek hautatutako gainerako eskatzaileen kasuan, azken ikasturtean enpresan egonaldia egin duten pertsonak izango dute lehentasuna.

Bosgarrena.– Matrikulazio-prozedura.

Hautatutako hautagaiek jakinarazpen ofizial bat jasoko dute, onartuen izaera eta matrikula osatzeko beharrezkoak diren datak eta baldintzak adierazita.

Onartuek epe espezifikoko bat izango dute matrikula egiteko, ekainaren 4tik 26ra bitartekoa. Matrikula ezarritako epearen barruan formalizatzen ez bada, automatikoki uko egingo zaio plazari.

2026ko apirilaren 24a, ostirala

V. ERANSKINA

LANBIDE HEZIKETA BIRTUAL-ERDIPRESENTZIALEAN ONARTZEKO ETA
MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK

Lehenengoa.– Egutegia.

| OHARRAK: | IRAKASKUNTZA BIRTUAL-ERDIPRESENTZIALAREN ARAUBIDEA |
|--|--|
| Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira. Izapideak ikastetxeko irekita dagoen ordutegian egin beharko dira. | Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuan ematen diren erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen moduluetarako bakarrik |
| Ohiko epea | |
| Eskaera aurkeztea | Maiatzaren 4tik 22ra bitartean |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Maiatzaren 22ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea | Ekainaren 30era arte (dokumentazioa online edo aurrez aurre ikastetxe batean aurkezten dutenentzat) Ekainaren 20ra arte (gainerakoak) |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Uztailaren 3a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Uztailaren 7ko 12:00ak arte |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratzea | Uztailaren 8a |
| Matrikula egitea eta ordaintzea | Behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik uztailaren 11ra (24:00ak arte). |
| Ondorengo esleipenen behin betiko zerrenda argitaratzea/ Ondorengo esleipenen matrikula egitea, matrikula ordaintzea barne. | Webgunean iragarriko dira eta gaitutako komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. |
| Ezohiko epea | |
| Eskaera aurkeztea | Uztailaren 20tik 24ra bitartean |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Uztailaren 24ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea | Uztailaren 24ra arte |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Irailaren 4a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Behin-behineko zerrendak argitaratzen direnetik irailaren 11ra arte. |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratzea | Irailaren 16a |
| Matrikula egitea eta ordaintzea | Behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik irailaren 18ra arte |
| Ondorengo esleipenen behin betiko zerrenda argitaratzea / Ondorengo esleipenen matrikula egitea, matrikula ordaintzea barne. | Webgunean iragarriko dira eta gaitutako komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. |

Bigarrena.– Onarpen-eskaerei buruzko zehaztasunak.

1.– Heziketa-zikloei (D Graduak) lotutako lanbide-moduluak eskatu ahal izango dira. Eskaera bat egingo da pertsona interesatuta dagoen modulu-tako ziklo bakoitzeko.

Nahi adina modulu eska daiteke, eta pertsona bati ziklo bateko baino gehiagoko moduluak eslehi dakizkioke. Dena den, onartutako ikasleek ezingo dute matrikularik egin bi heziketa-ziklotako modulu-tan,aldi berean, urrutiko irakaskuntza-araubidean. Eskainitako ziklo bati lotutako modulu batean matrikula egiteak beste edozein ziklori lotutako modulu-tan matrikulatzeko eskubideari uko egitea dakar.

Nolanahi ere, pertsona bat ziklo bereko Lantokiko Prestakuntzan eta, hala badagokio, Proiektuan matrikulatzen bada eta gainerako moduluak gainditu baditu, bigarren ziklo bateko moduluetan matrikulatu ahal izango da, ikasle berrien baldintza beretan.

2.– Eskaera edo eskaerak, bat ziklo bakoitzeko, Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratura zuzenduko dira, eta, haietan, adieraziko da, lehentasun-hurrenkeran zerrendatuta, zer modulu egin nahi diren eta ordu presentzialak zer ikastetxetan egingo diren. Halaber, ordu presentzialik gabeko moduluetan, azterketa zer ikastetxetan egin nahi den aukeratu beharko da.

3.– Hezkuntza Sailak gehieneko muga bat ezarri du ikasleak matrikulatzen diren moduluen iraupenaren guztizko baturarako: ikasle berriak 700 ordurako matrikulatu ahalko dira gehienez, eta berriak ez diren ikasleak 1.000 ordurako. Hori guztia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 11ko Aginduak, urrutiko prestakuntza telematikoaren modalitatean Lanbide Heziketako irakaskuntzen ezarpena eta antolamendua arautzen duenak, 3.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Hala ere, ezarritako gehieneko muga horiek gehienez % 5 gainditu ahal izango dituzte dagokion zikloa bukatzeko hala behar duten ikasleek.

Hirugarrena.– Plazen esleipenari buruzko zehaztapenak.

1.– Plazak esleitzeko, plaza bat baino gehiago eskatuz gero, eskaeran adierazitako lehentasunari erreparatuko zaio.

Esleipena egiteko, talde hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan:

A) Lehenagoko ikasle izateari eusten dioten ikasleak, matrikulatu nahi den ziklo bereko moduluaren bat gainditu dutenak aurreko ikasturtean eta Urrutiko Araubidean, eta ikasturtean zehar beste modulerik utzi ez dutenak, lehentasunezko zat jotzen direnak, hurrenkera honekin:

- a) Zikloan gainditutako moduluen kopurua.
- b) Gainditutako moduluen ehunekoa, aurreko ikasturtean matrikulatutakoen aldean.
- c) Historia akademikoa.

B) Ikasle berriak eta lehentasunezko zat jotzen ez diren lehenagoko ikasleak, lehentasun honekin:

- a) Matrikulatu nahi den zikloko sektoreko jarduneko, langileak eta langabeak.
- b) Gainerako pertsonak.

Eskaintako 2. mailako moduluak irizpide hauen arabera esleituko dira, hurrenkera honekin:

- a) EAEn erroldatuta egotea.
- b) Heziketa-zikloan gainditutako moduluen ehunekoa.
- c) Egiaztatutako gaitasun-atalen ehunekoa.
- d) Historia akademikoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea gainditu dutenei lehentasuna emanez.

Eskaintako 3. mailako moduluak irizpide hauen arabera esleituko dira, hurrenkera honekin:

- a) EAEn erroldatuta egotea.
- b) Heziketa-zikloan gainditutako moduluen ehunekoa.

c) Egiaztatutako gaitasun-atalen ehunekoa.

d) Historia akademikoa, Batxilergoa edo baliokidea gainditu dutenei lehentasuna emanaz.

Laugarrena.– Matrikulazio-prozedura.

1.– Eskabideak aurkezteko eta matrikulatzeko epe hauek ezartzen dira:

a) Ohiko epea:

Eskaerak maiatzaren 4tik maiatzaren 22ra bitartean aurkeztuko dira, eta esleitutako plazetarako matrikula behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik uztailaren 11ra arte egin ahal izango da (24:00ak arte).

b) Ezohiko epea:

Epe arruntaren ondoren huts gelditzen diren plazetarako, uztailaren 20tik 24ra bitartean aurkeztuko dira eskabideak, eta behin betiko zerrendak argitaratu ondoren egin ahal izango da matrikula, irailaren 11ra arte.

c) Ezohiko aldia amaitu ondoren, plaza hutsik badago, plaza huts horiek betetzeko eskabideak onartuko dira, eta urriaren 16ra arte matrikulatu ahal izango dira lehen lauhilekoan egin beharreko moduluetarako, eta urtarrilaren 15era arte bigarren lauhilekoko moduluetarako.

2.– Urrutiko araubide telematikoko heziketa-zikloen irakaskuntzen kasuan, onartutako pertsonen behin betiko zerrendetan ageri diren eskatzaileek egutegian zehazten den epean egin beharko dute matrikula. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko uztailaren 10ean emandako aginduan ikasketen modalitate horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko dute. Matrikula eraginkorra izango da soilik dagokion prezio publikoa ordaintzen bada.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez egin ahal izango da ordainketa, kreditu-erakunde laguntzaileen bitartekaritzarekin.

Ordainketa-gutuna honela eskuratu beharko da: izena emateko agirian datorren web-helbidean (URL), agiri horretan ageri diren sarbide-gakoak erabilita.

Ordainketa ezarritako epean egin ezean, esleitutako plazen gaineko eskubide orori uko egiten zaiola ulertuko da, ez baita plaza horien ordainketa egin.

4.– Prozedura horretan onartutako pertsonen zerrendak eta matrikulatzeko epeak ikasgunean argitaratuko dira, eta Urrutiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dira, interesduna identifikatu ondoren. Pertsona horiek adierazi den epean formalizatu beharko dute matrikula, prezio publikoa ordaindu ondoren.

Ordainketa ezarritako epean egin ezean, ordaindu ez diren esleitutako plazen gaineko eskubide orori uko egiten zaiola ulertuko da.

5.– Prozedura horren ondoren plaza libreak geratzen badira, ezohiko matrikula-epean bete ahal izango dira.

Bosgarrena.– Ezohiko epea urrutiko araubideko irakaskuntzan.

1.– Zuzeneko sarbidearen bitartez plaza lortzeko eskaera ekainean aurkeztu arren, ziurtagiri akademikoa aurkeztu ezinik geratu zirenek, eskatzen ziren baldintzak une horretan bete ezin

zituztela-eta, ezohiko epea izango dute hartarako, eskatzen den titulazioa lortzen dutenean. Horretarako, Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuan aurkeztu beharko dute egiaztagiri akademikoa uztailearen 30 baino lehen.

2.– Behin esleipena egiteko ohiko epea bukatuta, eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko beste epe bat irekiko da, moduluetan dauden plaza hutsak betetzeko.

Interesdunek, epe horretan parte hartzeko, eskaera aurkeztu beharko dute ohiko eperako ezarritako prozedurari jarraituz, eta dagokion dokumentazioa bidali beharko dute uztailearen 30a baino lehen, ohiko eperako ezarritako bideak erabiliz.

Eskatzailea, dokumentazio hori ezarritako epean bidali ezean, prozedurako fase honetatik kanpo geratuko da automatikoki.

3.– Jasotako eskaerei baremoa ezarri eta gero, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko eta behin betiko zerrendak argitaratuko dira Ikasgunean, adierazitako egunetan.

4.– Onartuek ezarri den epean egin beharko dute matrikula, eta prezio publikoa ordaintzeko azken eguna egutegian adierazitakoa izango da.

Ordainketa ezarritako epean egin ezean, ordaindu ez diren esleitutako plazen gaineko eskubide orori uko egiten diotela ulertuko da.

5.– Ezohiko epea amaitu eta plaza hutsik badago, eskabideak onartuko dira eta, beraz, urriaren 16ra arte matrikulatu ahal izango dira lehenengo lauhilekoan egin beharreko moduluetarako, eta urtarrilaren 15era arte bigarren lauhilekoko moduluetarako.

VI. ERANSKINA

IKASTETXEEK HEZKUNTZA ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILAREN APLIKAZIO INFORMATIKOA ERABILTZeko JARRAIBIDEAK (ARAUBIDE PRESENTZIALA ETA BIRTUAL-ERDIPRESENTZIALA)

Lehenengoa.– Prozedura informatikoaren ezaugarriak.

1.– Derrigortasuna.

a) Ikasleak onartzeko, prozedura informatiko espezifiko bat erabiliko da, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak horretarako diseinatua; eskabideen hurrenkera ezartzeko eta plazak esleitzeko, ordea, I. eranskinean eta irakaskuntza-modalitateari dagokion eranskinean adierazitakoari jarraituko zaio, ikastetxeak ezarritako eran.

b) Aplikazio hori erabili beharko dute ikastetxe publiko guztiek eta itunpeko ikastetxe pribatu guztiek, jarraibide hauetan ezarritako baldintzetan.

c) Itundu gabeko ikastetxe pribatuek, hezkuntza-itunik gabe jarduten badute irakaskuntzan, nahitaez erabili beharko dute aplikazio informatikoa, VI. eranskineko zazpigarren jarraibidean ezarritako eran.

2.– Datu-iturri ofizial bakarra.

Ikastetxeek informatika-aplikazio horretan sartutako datuak izango dira hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketako zikloetako ikasleei buruzko informazio-iturri ofizial bakarra. Aplikazio horretan jasotako datuak soilik erabiliko dira ikasleei buruzko agiri edota ziurtagiri ofizialak egiteko –hala nola aktak, titulu ofizialak eta antzeko dokumentuak–.

Bigarrena.– Ikastetxe bakoitzaren plaza-eskaintzaren definizioa.

1.– Eskaintzen diren heziketa-zikloei buruzko datuak sartzea.

Hezkuntza-administrazioak aplikazio informatikoan sartuko ditu, aurrematrikula hasi aurretik, ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuen eskaintzari dagozkion datuak, 2026-2027 ikasturterako eskainitako C gradu (ziurtagiri profesionalak), D gradu (oinarrizko, erdi-mailako, goi-mailako heziketa-zikloak), eta E gradu (espezializazio-ikastaroak) guztienak, honako hauek adierazita: ikastetxea, zikloa eta, hala badagokio, modulua, talde-kopurua, txanda eta hizkuntza-eredua.

2. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikastetxe publikoren edo itunpeko ikastetxe pribaturen batek aplikazio informatikoan akatsen bat aurkitzen badu ikastetxeak eskain ditzakeen zikloei buruzko datuetan, bi eguneko epea izango du, eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, akatsaren berri ahalik eta lasterren emateko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari. Erreklamazioa egiazkoa dela egiaztatu ondoren, ordezkaritzak akatsa zuzenduko du, eta horren berri emango dio ikastetxeari.

3.– Eskainitako plazei buruzko datuak sartzea.

a) Eskaintza Osoko Araubide Presentzialeko irakaskuntzan, honela banatuko dira eskaintzako plazak ziklo eta hizkuntza-ereduen artean:

- Gehieneko talde kopuruak ezarriko du ikastetxeak ziklo bakoitzean izango duen hasierako gehieneko plaza kopurua.

- Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak ezarriko du ziklo bakoitzean guztira zenbat plaza dauden. Horretarako, kontuan hartu beharko dira ikastetxean bertan, ziklo, txanda eta hizkuntza-eredu berean, errepikatzen duten ikasleei dagozkien plazak. Ikastetxe publiko edo itunpeko pribatu bakoitzaren ardura izango da aplikazio informatikoan sartzea ziklo bakoitzeko guztizko plaza-kopurua nola banatzen den talde eta hizkuntza-ereduen artean.

b) Araubide Birtual-Erdipresentzialeko irakaskuntzetan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak planifikatuko du zenbat plaza eskainiko diren.

Hirugarrena.– Onarpen-eskaerak.

1.– Eskaerak sartzea.

a) Eskabidea online egiten duten eskatzaileek edo, hala badagokio, eskaeren hartzaile diren ikastetxeek honako datu hauek sartu beharko dituzte, ezinbestez, aplikazio informatikoan:

– Eskatzailearen datu pertsonalak.

– Eskatutako plazen zerrenda, eskatutako lehentasun-hurrenkeraren arabera ordenatuta.

– Helbide elektronikoa.

b) Izen-ematea egiten den unean egiaztatu egingo da interesdunak baduela erabiltzailea eta pasahitza Ikasgunean; izan ere, beharrezkoak izango dira eskaeraren jarraipena egiteko. Halakorik ez badauka, une horretan bertan emango zaizkio.

2.– Eskaerak grabatzeko epemuga.

Ikastetxeek fase honetako datuak sartuta izan behar dituzte maiatzaren 22ko 24:00ak baino lehen, irakaskuntza presentzian eta birtualean. Hala ere, irakaskuntza presentzian eskatzen dutenek aurkeztu beharreko dokumentuak uztailearen 2ko 14:00ak arte sartu ahal izango dira LHko ikastetxeetan. Hortik aurrera, ikastetxeak ezin izango du beste aldaketarik egin.

Laugarrena.– Eskaintza egokitzea.

1.– Eskaintza eskarira egokitzea.

a) Aplikazio informatikoak aukera emango die ikastetxeei une oro jakiteko zenbat plaza eskatu diren maila, ziklo, eta, hala badagokio, modulu, txanda eta hizkuntza-eredu guztietan, eta aukera emango die, halaber, hauek konparatzeko: alde batetik, eskari horren osaera eta banaketa, eta bestetik, eskaintza, bigarren jarraibidearen arabera definitu dena.

b) Eskaintza zikloen eta hizkuntza-ereduen artean banatzeari eta horietako bakoitzeko plazei buruzko datu guztiak aplikazio informatikoan sartu beharko dira aurrematrikula hasiera data baino lehen, eranskin honetako bigarren jarraibideko 1. puntuan ezartzen den bezala.

c) Momentu horretatik aurrera, behin ikastetxeko eskaintzaren eta eskariaren datuetan aldaketak egiteko epea bukatuta, maila bakoitzerako aurkeztutako eskabide guztiak onar daitezkeen edo ez zehaztuko du aplikazio informatikoak.

Bosgarrena.– Zerrendak eta erreklamazioak.

1.– Onartutakoen eta ez-onartutakoen behin-behineko zerrendak.

Aplikazio informatikoak ikastetxeen esku jarriko ditu onartutakoen eta ez-onartutakoen behin-behineko zerrendak. Zerrenda horietan, plaza esleituko zaie eskatzaileei, ikastetxe eta ziklo batean, eta, hala badagokio, modulu, eredu eta txanda batean, araudi honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Esleipena egin eta gero, interesdunek Ikasgunean <https://ikasgunea.euskadi.eus> eta eskaera egin duten ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dituzte onartutakoen eta ez-onartutakoen zerrendak. Bertan, lehentasunari, hurrenkerari eta berdinketa hausteko zenbakiari buruzko datuak egongo dira jasota.

2.– Erreklamazioak aurkeztea.

Pertsona batek erreklamazioa aurkezten badu, ikastetxea pertsona horri dagokion erreklamazio-pantailan sartuko da, eta, han, jasoko du baremoko zer atalen aurka aurkezten den erreklamazioa, zer arrazoi ematen den eta zer dokumentu aurkezten duen erreklamaziogileak. Ondoren, aurkeztutako erreklamazioaren kopia bat inprimatu, zigilatu eta erreklamaziogileari emango dio.

3.– Erreklamazioak ebaztea.

a) Ikastetxeak, aurkeztu diren erreklamazioak aztertu ondoren, egin beharreko zuzenketak sartu beharko ditu aplikazio informatikoan; uztailaren 9ko 12:00etara arteko epea izango du horretarako, Eskaintza Osoko Araubide Presentzialeko irakaskuntzan eta Araubide Birtualeko irakaskuntzan.

Horretarako, aplikazio informatikoan erreklamazioak ebazteko pantailan sartu beharko du, zehazki erreklamaziogileari dagokion hartan. Ikastetxeak erreklamazioa baztertu edo osorik edo partez onartu beharko du, aplikazio informatikoan dagozkion laukiak markatuz eta, hala behar denean, erreklamazioan onartutako datuak aldatuz.

b) Erreklamazio bat osorik edo neurri batean onartzen bada, dagozkion datuak aldatuko dira behin betiko zerrendetan.

4.– Onartutakoen eta ez-onartutakoen behin betiko zerrendak.

Aplikazio informatikoak onartutakoen eta ez-onartutakoen behin betiko zerrendak emango dizkio ikastetxeari. Zerrenda horietan, plaza esleituko zaie eskatzaileei, ikastetxe eta ziklo batean, eta, hala badagokio, modulu, eredu eta txanda batean, araudi honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Interesdunek Ikasgunean <https://ikasgunea.euskadi.eus> eta eskaera egin duten ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dituzte onartutakoen eta ez-onartutakoen zerrenda. Bertan, lehentasunari, hurrenkerari eta berdinketa hausteko zenbakiari buruzko datuak egongo dira jasota.

Seigarrena.– Matrikula egitea.

Lanbide Heziketarako dagoen aplikazio informatiko espezifikorearen bitartez egin beharko dira matrikula guztiak. Matrikulatutako pertsonaren datu guztiak eta matrikularen berrespena sartu beharko dira aplikazio horretan.

Ohiko epeko I. eta II. faseetan online egindako matrikula guztiak jaso behar dira.

Zazpigarrena.– Estatistika-datuak baliozkotzea.

Ikastetxe guztiek egin beharko dute.

A) Ohiko epean:

Ikastetxeek ikasleen eskaerei eta matrikulazioari buruzko datuak grabatu beharko dituzte, egutegi hau errespetatuz:

a) D graduen (Lanbide Heziketako zikloak) eta E graduen (espezializazio-ikastaroak) esleipenerako aurkeztutako eskaera guztien datuak grabatzea: maiatzaren 27ra arte, egun hori barne.

b) Ohiko matrikula-epean edozein mailatan matrikulatutako pertsona guztien matrikularen berrespena grabatzea (ikasle berriak, maila errepikatzen duten ikasleak eta maila batetik bestera igarotzen diren ikasleak barne): uztailaren 22ra arte, egun hori barne.

B) Ezohiko epean:

Halaber, irailean, ikastetxeek matrikularen behin betiko estatistika-datuak baliozkotu beharko dituzte horretarako gaitutako aplikazio informatikoan, Hezkuntza Sailaren estatistika-unitateek adierazten dieten epean.

Ikastetxe bakoitzean Lanbide Heziketako zikloetako, espezializazio-ikastaroetarako eta ibilbide integratuetako ikasle guztien datuak eta matrikularen berrespena grabatzeko prozedura guztiz amaituta egon beharko da urriaren 16rako.

Ikastetxeetan, ohiko eta ezohiko epeak bukatu ondoren, epez kanpoko matrikulaziorik eginez gero, ikastetxeek berehala sartu beharko dituzte aplikazio informatikoan matrikulatutakoaren datu guztiak eta matrikularen berrespena.

Datuak grabatzeko prozedura bukatzea.

C graduak (ziurtagiri profesionalak), D graduak (Lanbide Heziketako zikloak) eta E graduak (espezializazio-ikastaroak): ikasle guztien datuak eta matrikularen berrespena grabatzeko prozedura guztiz amaituta egongo da urriaren 16rako. C graduen eta espezializazio-programen matrikula irekita egongo da.

2026ko apirilaren 24a, ostirala

VII. ERANSKINA

SARBIDERAKO LEHENTASUN-TAULAK

I. TAULA

OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA-ZIKLO BATETIK ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLO BATERA SARTZEKO LEHENTASUNAK.

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|-------------------------------|---|---|--|--|
| Jarduera fisikoak eta kirolak | Kirol-instalazioen irisgarritasuneko eta kontserbazioko oinarrizko profesionala | > Natura-inguruneke eta aisialdiko gidaria | | Gainerako tituluak |
| Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | > Administrazio-kudeaketa | > Merkataritza eta marketina – Merkataritza- jarduerak – Elikagaien merkaturatzea > Informatika eta komunikazioak > Arte grafikoak > Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Gainerako tituluak |
| Nekazaritza | Nekazaritza-lorezaintza eta lore-konposizioak | > Lorategizaintza eta lorezaintza | > Nekazaritza – Natura-ingurunea ustiatzea eta kontserbatzea – Nekazaritza ekologikoko produkzioa – Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa > Elikagaien industriak | Gainerako tituluak |
| | Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak | > Nekazaritza ekologikoko produkzioa > Nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzioa | > Nekazaritza – Natura-ingurunea ustiatzea eta kontserbatzea – Lorategizaintza eta lorezaintza > Elikagaien industriak | Gainerako tituluak |
| | Baso-aprobetxamenduak | > Natura-ingurunea ustiatzea eta kontserbatzea | > Nekazaritza – Lorategizaintza eta lorezaintza – Nekazaritza ekologikoko produkzioa – Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa > Elikagaien industriak > Eraikuntza eta obra zibila | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|----------------------------|---|---|---|--|
| Arte grafikoak | Arte grafikoak | <ul style="list-style-type: none"> > Inprimaketa grafikoak > Aurreinprimaketa digitala | <ul style="list-style-type: none"> > Administrazioa eta kudeaketa > Merkataritza eta marketina <ul style="list-style-type: none"> – Merkataritza-jarduerak > Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Gainerako tituluak |
| Merkataritza eta marketina | Merkataritza-zerbitzuak | <ul style="list-style-type: none"> > Merkataritza-jarduerak > Elikagaien merkaturatzea | <ul style="list-style-type: none"> > Administrazioa eta kudeaketa > Informatika eta komunikazioak > Arte grafikoak > Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Gainerako tituluak |
| Eraikuntza eta obra zibila | Eraikinak eraberritzea eta mantentzea | <ul style="list-style-type: none"> > Barnealdeetako, dekorazioko eta birgaitzeko obrak > Eraikuntza | <ul style="list-style-type: none"> > Instalatze- eta mantentze-lanak > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak > Elektrizitatea - elektronika > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Informatika eta komunikazioak > Fabrikazio mekanikoa > Itsasoa eta arrantza | Gainerako tituluak |
| Elektrizitatea-Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | <ul style="list-style-type: none"> > Instalazio elektriko eta automatikoak > Telekomunikazio-instalazioak | <ul style="list-style-type: none"> > Instalatze- eta mantentze-lanak > Informatika eta komunikazioak > Itsasoa eta arrantza > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Fabrikazio mekanikoa > Eraikuntza eta obra zibila > Kimika > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|---|---|---|--|--|
| Fabrikazio Mekanikoa eta Instalatze eta Mantentze Lanak | Fabrikatzea eta muntatzea | <ul style="list-style-type: none"> > Mekanizazioa > Soldadura eta galdaragintza > Beroa sortzeko instalazioak > Mantentze elektromekanikoa > Hozteko eta girotzeko instalazioak | <ul style="list-style-type: none"> > Fabrikazio mekanikoa <ul style="list-style-type: none"> – Metal eta polimeroz konformatzea – Sistema aeronautikoen egiturak eta instalazioak muntatzea > Elektrizitatea-elektronika > Eraikuntza eta obra zibila > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Informatika eta komunikazioak > Kimika > Itsasoa eta arrantza > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | Gainerako tituluak |
| Fabrikazio Mekanikoa eta Elektrizitatea-Elektronika | Instalazio elektroteknikoak eta mekanika | <ul style="list-style-type: none"> > Mekanizazioa > Soldadura eta galdaragintza > Instalazio elektriko eta automatikoak > Telekomunikazio-instalazioak > Mantentze elektromekanikoa | <ul style="list-style-type: none"> > Instalatze- eta mantentze-lanak <ul style="list-style-type: none"> – Beroa sortzeko instalazioak – Hozteko eta girotzeko instalazioak > Fabrikazio mekanikoa <ul style="list-style-type: none"> – Metal eta polimeroz konformatzea – Sistema aeronautikoen egiturak eta instalazioak muntatzea > Eraikuntza eta obra zibila > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Informatika eta komunikazioak > Kimika > Itsasoa eta arrantza > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|--|---|---|---|--|
| Fabrikazio Mekanikoa eta Elektrizitatea- Elektronika | Metalezko elementuak fabrikatzea | <ul style="list-style-type: none"> > Mekanizazioa > Soldadura eta galdaragintza > Instalazio elektriko eta automatikoak > Telekomunikazio-instalazioak > Mantentze elektromekanikoa | <ul style="list-style-type: none"> > Instalatze- eta mantentze-lanak <ul style="list-style-type: none"> – Beroa sortzeko instalazioak – Hozteko eta girotzeko instalazioak > Fabrikazio mekanikoa <ul style="list-style-type: none"> – Metal eta polimeroz konformatzea – Aireontzietako egituren muntaketa eta sistemen eta tresneriaren instalazioa > Eraikuntza eta obra zibila > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Informatika eta komunikazioak > Energia eta ura > Erauzketa-industriak > Kimika > Itsasoa eta arrantza > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | Gainerako tituluak |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | <ul style="list-style-type: none"> > Sukaldaritza eta gastronomia > Jatetxe-arloko zerbitzuak > Okintza, gozogintza eta konfiteria | <ul style="list-style-type: none"> > Ostalaritza eta turismoa <ul style="list-style-type: none"> – Elikagaien merkaturatzea > Irudi pertsonala | Gainerako tituluak |
| | Ostatua eta garbategia | <ul style="list-style-type: none"> > Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egitea | <ul style="list-style-type: none"> > Ostalaritza eta turismoa > Gizarte- eta kultura-zerbitzuak > Elikagaien industriak > Irudi pertsonala | Gainerako tituluak |
| Irudi pertsonala | Ile-apainketa eta estetika | <ul style="list-style-type: none"> > Estetika eta edergintza > Ile-apainketa eta -kosmetika | <ul style="list-style-type: none"> > Elikagaien industriak > Ostalaritza eta turismoa > Gizarte- eta kultura-zerbitzuak <ul style="list-style-type: none"> – Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea | Gainerako tituluak |
| Elikagaien industriak | Elikagaien industriak | <ul style="list-style-type: none"> > Elikagaien elaborazioa > Okintza, gozogintza eta konfiteria > Laborategiko eragiketak > Elikagaien merkaturatzea | <ul style="list-style-type: none"> > Elikagaien industriak <ul style="list-style-type: none"> – Okintza, gozogintza eta konfiteria > Kimika <ul style="list-style-type: none"> – Planta kimikoa > Ostalaritza eta turismoa > Irudi pertsonala > Fabrikazio mekanikoa > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|--|---|---|--|--|
| Elikagaien industriak eta Ostalaritza eta Turismoa | Okintzako eta pastelgintzako jarduerak | <ul style="list-style-type: none"> > Okintza, gozogintza eta konfiteria > Elikagaien elaborazioa > Sukaldaritza eta gastronomia | <ul style="list-style-type: none"> > Ostalaritza eta turismoa <ul style="list-style-type: none"> – Jatetxe-arloko zerbitzuak – Elikagaien merkaturatzea > Merkataritza eta marketina | Gainerako tituluak |
| Informatika eta komunikazioak | Informatika eta komunikazioak | <ul style="list-style-type: none"> > Sistema mikroinformatikoak eta sareak > Telekomunikazio-instalazioak | <ul style="list-style-type: none"> > Elektrizitatea - elektronika <ul style="list-style-type: none"> – Instalazio elektriko eta automatikoak > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak > Itsasoa eta arrantza > Kimika > Eraikuntza eta obra zibila | Gainerako tituluak |
| Informatika eta komunikazioak eta Administrazioa eta Kudeaketa | Bulegoko informatika | <ul style="list-style-type: none"> > Sistema mikroinformatikoak eta sareak > Administrazio-kudeaketa > Telekomunikazio-instalazioak | <ul style="list-style-type: none"> > Elektrizitatea - elektronika <ul style="list-style-type: none"> – Instalazio elektriko eta automatikoak > Merkataritza eta marketina > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak > Itsasoa eta arrantza > Kimika > Eraikuntza eta obra zibila | Gainerako tituluak |
| Instalatze- eta Mantentze-lanak | Etxebizitzien mantentze-lanak | <ul style="list-style-type: none"> > Hozteko eta girotzeko instalazioak > Beroa sortzeko instalazioak > Instalazio elektriko eta automatikoak | <ul style="list-style-type: none"> > Elektrizitatea- elektronika <ul style="list-style-type: none"> – Telekomunikazio-instalazioak > Instalatze- eta mantentze-lanak <ul style="list-style-type: none"> – Mantentze elektromekanikoa > Eraikuntza eta obra zibila > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|---|--|--|--|--|
| Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak | Arotzeria eta altzarigintza | <ul style="list-style-type: none"> > Instalazioak eta altzari-hornikuntza > Arotzeria eta altzarigintza > Zura prozesatzea eta eraldatzea | <ul style="list-style-type: none"> > Eraikuntza eta obra zibila > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Itsasoa eta arrantza > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Elektrizitatea - elektronika > Informatika eta komunikazioak | Gainerako tituluak |
| Itsasoa eta Arrantza | Itsaso- eta arrantza-jarduerak | <ul style="list-style-type: none"> > Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza > Akuikultura-hazkuntza | <ul style="list-style-type: none"> > Itsasoa eta arrantza <ul style="list-style-type: none"> – Ontzi eta itsasontzien makineriaren zainketa eta kontrola – Urpeko eragiketak eta eragiketa hiperbarikoak > Eraikuntza eta obra zibila > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak > Elektrizitatea - elektronika > Informatika eta komunikazioak > Kimika | Gainerako tituluak |
| Itsasoa eta Arrantza eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak | Kirol-ontzien eta laketontzien mantentze-lanak | <ul style="list-style-type: none"> > Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza > Ontzi eta itsasontzien makineria zaintzea eta kontrolatzea > Karrozeria > Ibilgailu automobilien elektromekanika | <ul style="list-style-type: none"> > Itsasoa eta arrantza <ul style="list-style-type: none"> – Uretako hazkuntzak – Urpeko eragiketak eta eragiketa hiperbarikoak > Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak <ul style="list-style-type: none"> – Makineriaren elektromekanika > Elektrizitatea - elektronika > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Kimika > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak > Informatika eta komunikazioak | Gainerako tituluak |
| Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak | Etxeko lanak eta eraikinak garbitzea | <ul style="list-style-type: none"> > Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea | <ul style="list-style-type: none"> > Ostalaritza eta turismoa > Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza > Osasungintza <ul style="list-style-type: none"> – Erizaintzako zaintza osagarriak (LOGSE) | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Oinarrizko mailako heziketa-ziklo honetatik | 1. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna familia hauetako titulu hauetarako edo erdi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna erdi-mailako titulu hauetarako |
|--|--|--|---|--|
| Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | <ul style="list-style-type: none"> > Ibilgailu automobilen elektromekanika > Karrozeria > Ontzi eta itsasontzien makineria zaintzea eta kontrolatzea > Makinen elektromekanika | <ul style="list-style-type: none"> > Elektrizitatea - elektronika > Itsasoa eta arrantza > Fabrikazio mekanikoa > Instalatze- eta mantentze-lanak > Kimika > Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak > Informatika eta komunikazioak > Eraikuntza eta obra zibila | Gainerako tituluak |
| Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | Ehunezko eta larruzko artikuluen konponketa Tapizatze-lanak eta gortinagintza | <ul style="list-style-type: none"> > Jantzigintza eta moda > Oinetakoak eta moda-osagarriak > Ehungintzako produktuak fabrikatzea eta hobetzea | <ul style="list-style-type: none"> > Merkataritza eta marketina > Arte grafikoak > Administrazioa eta kudeaketa | Gainerako tituluak |
| Beira eta zeramika | Beiragintza eta buztingintza | | <ul style="list-style-type: none"> > Arte grafikoak > Administrazioa eta kudeaketa > Merkataritza eta marketina > Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Gainerako tituluak |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

II. TAULA

ERDI-MAILAKO TITULU BATETIK GOI-MAILAKO TITULU BATERA SARTZEKO LEHENTASUNAK

| Lanbide-arloa | Sarbidea: erdi-mailako titulu honetatik | 1. kidesuna goi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna goi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna goi- mailako titulu hauetarako |
|---|---|--|---|--|
| Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio- kudeaketa | > Administrazioa eta finantzak > Zuzendaritzari laguntzea | > Osasun-dokumentazioa eta -administrazioa > Marketina eta publizitatea > Garraioa eta logistika > Nazioarteko merkataritza > Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzea | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak | Natura-ingurune eta aisialdiko gidari- lanak | > Gizarte- eta kirol- irakaskuntza eta -animazioa > Egokitzapen fisikoak | | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Zaldiketa-jarduketak | > Gizarte- eta kirol- irakaskuntza eta -animazioa > Egokitzapen fisikoak | > Paisajismoa eta landa- ingurunea | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Nekazaritza | Natura-ingurunea ustiatzea eta kontserbatzea | > Basoaren eta natura ingurunearen kudeaketa > Paisajismoa eta landa- ingurunea | > Ingurumen-hezkuntza eta -kontrola | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Lorategizaintza eta lorezaintza | > Basoaren eta natura ingurunearen kudeaketa > Paisajismoa eta landa- ingurunea | | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Nekazaritza ekologikoa | > Paisajismoa eta landa- ingurunea | > Basoaren eta natura ingurunearen kudeaketa | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktzioa | > Paisajismoa eta landa- ingurunea | > Basoaren eta natura ingurunearen kudeaketa | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Zaldiketa-jarduketak | > Paisajismoa eta landa- ingurunea | > Gizarte- eta kirol- irakaskuntza eta -animazioa > Egokitzapen fisikoak | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Arte grafikoak | Inprimaketa grafikoa | > Produkzio grafikoaren diseinua eta kudeaketa > Argitalpen inprimatuaren eta multimedia argitalpenen diseinua eta edizioa | > Web aplikazioen garapena > Plataforma anitzeko aplikazioen garapena | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Postinprimaketa eta akabera grafikoak | | | |
| | Aurreinprimaketa digitala | | | |
| Merkataritza eta marketina | Merkataritza- jarduerak | > Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzea | > Nazioarteko merkataritza > Marketina eta publizitatea > Garraioa eta logistika | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Elikagaien merkaturatzea | > Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzea > Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea | > Sukaldaritzako zuzendaritza > Jatetxe-arloko zerbitzuetako zuzendaritza | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Energia eta ura | Ur-tratamenduko estazioak erabiltzea | | | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Eraikuntza eta obra zibila | Eraikuntza | > Eraikuntza-obrak antolatzea eta kontrolatzea > Eraikuntza proiektuak > Obra zibileko proiektuak | | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Barnealdeetako, dekorazioko eta birgaitzeko obrak | | | |

2026ko apirilaren 24a, ostirala

| Lanbide-arloa | Sarbidea: erdi-mailako titulu honetatik | 1. kidesuna goi-mailako titulu hauetarako | 2. kidesuna goi-mailako titulu hauetarako | 3. kidesuna goi- mailako titulu hauetarako |
|--------------------------------|---|---|--|--|
| Elektrizitatea- Elektronika | Telekomunikazio- instalazioak | > Telekomunikazio sistemak eta sistema informatikoak | > Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak > Energia berriztagarriak > Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa > Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua > Mantentze elektronikoa > Automatizazioa eta robotika industriala > Elektromedikuntza klinikoa | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Instalazio elektriko eta automatikoak | > Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak > Energia berriztagarriak | > Automatizazioa eta robotika industriala > Mantentze elektronikoa > Telekomunikazio sistemak eta sistema informatikoak > Elektromedikuntza klinikoa > Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa > Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea > Mekatronika industriala | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Fabrikazio Mekanikoa | Metalak eta polimeroak moldekatze bidez konformatzea | > Fabrikazio mekanikoko diseinua | > Metalezko eraikuntzak | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Mekanizazioa | > Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa > Fabrikazio mekanikoko diseinua | > Metalezko eraikuntzak | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Soldadura eta galdaragintza | > Metalezko eraikuntzak | > Fabrikazio mekanikoko diseinua > Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Bitxigintza (LOGSE) | > Fabrikazio mekanikoko diseinua | > Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa | Goi-mailako gainerako tituluak |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta gastronomia | > Sukaldaritzako zuzendaritza > Jatetxe-arloko zerbitzuetako zuzendaritza | | Goi-mailako gainerako tituluak |
| | Jatetxe arloko zerbitzuak | > Jatetxe-arloko zerbitzuetako zuzendaritza | > Sukaldaritzako zuzendaritza | Goi-mailako gainerako tituluak |
